

América's 2006 Best

uk

97. zenbakia / 2006 apirilak 2



**Apirila 2006 Getxo**



# Kantuketan

**osteguna 6**

**Iker Goenaga**

Getxo Antzokia  
20:00  
gonbidapenez

**ostirala 7**

**Javi P3z Orkestra**

Getxo Antzokia  
20:00  
gonbidapenez

**larunbata 8**

**Ken Zazpi +  
Uski's**

Algortako Portu Zaharra  
20:00  
doakoa

**igandea 9**

**Juan Carlos Pérez  
Bernardo Atxagarekin**

Getxo Antzokia  
20:00  
Teleka: 5€ aurretiko salmenta  
6€ txarteldegian

## UK galeria > Carlos Terreros



Informazio Zientzietan lizentziatua da Carlos Terreros (Getxo, 1972). Gazte-gaztea zela hasi zen fotografia ikasten eta segituan gainbeheran zegoen Ibaizabal inguruko aldaketak eta pertsonak erretratatzeari ekin zion. Prentsa lokalean kolaboratu eta gero, 1995ean skateboardingari buruzko argazkiak egiten hasi zen *Tres60* aldizkariarentzat. Harrezkero skaterren bizimodua bikainki dokumentatzen ibili da.

Bere ibilbide profesionalak behartuta makina bat herrialde ezagutu ditu Carlosek: Trinidad eta Tobago, Maroko, AEB... 2000. urtean *Erosion* skate aldizkaria sortu eta lau urtez zuzendari lanak egin zituen bertan. Baina ipurterrea da Terreros eta argazkilaritzarekiko maitasunak bultzatuta fotografia artistikora jo du azken boladan. UK honetako azalean bere azken lanetako bat argitaratu dugu.



«Emaitekotan emazu, bertzela ezetz errazu» Euskal esaera zaharra

## Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Bide seinalea, Pedro Zarrabeitia.
- 6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Photoshop.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Ereaga.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Pedro eta Adrian Rojo.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

### SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Lehengo labeak, Asier Mentxaka.
- 28. ARGAZKIA. XIX. mendeko Getxo, Errazkin.
- 30. BERBETAN. Juan Carlos Perez, Unai Brea.
- 34. FOTOGRAFIA. Pou anaiak, Jabi Baraiazarra.

### KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Kubako zinema Leioan.
- 43. MUSIKA. Kantuketan Getxon. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Laura Mintegiren akabuko nobela. Liburuen erreseinak.
- 45. KIROLAK. Punta Galea.

### EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Cristian Amezaga, Oiane Moran
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Plentziako Zuri-beltz tabemara.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Urdulizko Ansoleaga baserria, 1911.
- 54. AITORMENAK. Eñaut Elorrieta.



30 Juan Carlos Perez

### Berbetan


Herri honek eman duen musikaririk handienetakoa da Juan Carlos Perez. Apirilaren 9an, Bernardo Atxagarekin batera, Getxo Antzokian joko du.



49 Zuri-beltz taberna




34 Pou anaiak



46 Cristian Amezaga



16 Beñat Vidal



54 Eñaut Elorrieta

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Arnezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarrinaga, Aritz Bregel, Oiane Moran

FOTOGRAFIA: Asier Mentbaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799


Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen banki, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da




Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEA

Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

UDALA



Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du

UDALA



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskaraz elkarteen laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Sopelano Udalaren laguntza jasotzen du

Sopelano Udala



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sallaren dirulaguntza jaso du

EROSKI FUNDAZIOA



94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

# gugeu

## Euskaraz gozatzeko

Laugarren urtez atzera ere ekimen txalogarria antolatu du Getxoko Euskara Zerbitzuak: Kantuketan. 2003an abian ipini zuten musika-ziklo hau, euskal musikaren talderik eta artistarik onenak bildu gura -eta baita lortu ere- dituen. Aurten ere programa ederra eta anitza prestatu dute, gaur egun Euskal Herrian euskaraz egiten den musika genero desberdinen erakusgarri. Folk, musika elektronikoa, rocka... denetarik entzuteko aukera paregabea edukiko dugu Getxon apirilaren 6 eta 9 bitartean (programa zehatza aldizkariaren 2. orrialdean daukazu). Esan bezala, ekimen garrantzitsua iruditzean zaigu Kantuketan eta horregatik UK honetako orrialdeetara Getxora jotzera etorriko diren artistak ekartzen ahalegindu gara. Juan Carlos Perez musikari gogoangarria elkarrizketatu dugu, zenbait gazte eta askoren ahotan dabilen Ken Zazpi taldeko Eñaut Elorrieta ere bai.

Baina hau ez da euskarazko kulturaren alde egunotan gure eskualdean egingo den ekitaldi bakarra, izan ere, apirila ekimenez beterik datorkigu. Sopelan Esaera Zaharren XXIII. Txapelketa egingo da hilaren 1ean AEK-k antolatuta. Berbots Erandion Euskaraz taldeak Kanpomartxo jaiegun handia ospatuko du San Kristobal auzoan hilaren 9an. Denetarik egongo da egunpasa eder horretan: euskal dantza, bertsolariak, umeentzako antzerkia, erromeria, etab. Getxoko Egizuk ere atzera ipini du martxan Irakurzaleen Txokoa programa, non idazleak eta irakurleak liburuaren gainean berba egiteko elkartzen diren.


Beno, badakizue euskaraz gozatzeko aukerak badaukazuela. Aprobetxa itzazue! ✓

UK-ko lantaldea

## irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat.  
Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

## matematika aplikatua



# Goizero irakurri > berria



ALGORTAKO HIRLUTASUN KALEA, 1985

**Oinezkook /** Kaletarrok, herrian zehar leku batetik bestera oinez gabiltzanok lehentasuna daukagula adierazten du goiko argazkiko trafiko seinaleak. Horma altxatu zuen igeltseroak mezu hori oso ondo barneratuta zeukala ederto erakusten du irudiak. Izan ere, errespetu handiz, seinalea ikutu barik, eraiki zuen horma ikurraren inguruan. Hori profesionaltasuna! ○ / Argazkia: **Pedro Zarrabeitia**

**Leihatila**

&gt; Maddi Albizu

**Parte hartzea**

Gabezi demokratiko handiak dituen herri eta udalerrri batean bizi gara. Hori bistan da, ez nik esaten dudalako, gehienok horren inguruan ados gaudelako baizik. Baita gabezi demokratiko horietatik, nahita ala nahi gabe, etekina ateratzen dutenak ere. Dena dela, ez genuke hori fatalitatetzat hartu behar, hori ez da gure patua, gure halabeharra. Izan ere, badira zenbait gauza txiki-handi egin daitezkeenak herriaren ahotsa entzunarazteko. Azken boladan ez dira gutxi Portu Zaharreko orubearen etorkizuna herritarren esku uztea aldarrikatzen ari direnak. Hona hemen beste bat. Ni neu. Udal honek aukera ezin hobea du herriaren parte-hartze prozesu xume, baina, aldi berean, garrantzitsu bat bultzatzeko. Porto Alegrekoa bezalako parte-hartze prozesuak mingain-puntan dauzkagu beti. Errazagoa da, nonbait, urruneko ekimenak goraiapatzea hurbileko arazoei era sortzaile eta ausart batean ekitea baino. Herriak erabaki dezala zer egin Portu Zaharreko orubean!! ✓

**IRITZIA**

“Zer eskatzen diozu egun berri bakoitzari? Zeintzuk dira goizero ohetik altxatzeko zure arrazoiak?”. Gai hau proposatu diogu hainbat laguni. Oraingoa Esti Ezkerraren txanda da.

# Ohetik ateratzeko zenbait arrazoi poetiko (I)

\* Mikel Basaberentzat

**Urruntasunak** jabetuarazten gaitu galdutako aukeren garrantziaz. Urte batzuk igaro genituen lantoki berean, bere aulkia nerearen ondoan, eta behin ere ez nintzen ausartu esaten zenbat estimatzen nuen –dudan– bere adiskidetasuna. Gutxitan egiten dugu topo orain, baina sentipena ez da ezabatu. Krisi garai batean, berak esan zidan merezi zuten kontuengatik tristetu behar nintzela, baina haiei buelta ematen ikasi behar nuela poztan ninduten gaii helduz. Bere aholkuari jarraituz hasi nintzen, egunero-egunero, ohetik altxatzeko arrazoi baten bila eta ondoko ondorioetara iritsi nintzen:

**Ohetik altxatzeko arrazoi bat egun eguzkitsu batean:** eguzkia bera. Umetan, eguzkitan jolasten orduak eta orduak pasa genitzakeela ikusita, sugandilen pareko ginela esaten zigun amak, haien antzera nahikoa baitzitzaigun eguzki izpiak antzematea gorputza berotu eta mugimenduan jartzeko.

Hori entzunda, irudimenaren menpeko ginen umeok berehala hasten ginen pentsatzen ez ote ginen V telesaileko pertsonaien moduan erdi-gizaki erdi-musker izango, eta poztu egiten gintuen gainerako umeen modukoak ez ginela pentsatze hutsak, nahiz eta arratoiekin elikatu behararen kontuak ez gintuen batere konbentzitzen... Ez naiz haurtzaroa idealizatzearen aldeko –iragana idealizatzearen aldeko ez naizen moduan–, baina ezin ukatu memento ederrak bizi izan

## «Ohetik altxatzeko arrazoi bat egun euritsu batean: lur hezearen usaina»

nituela garai hartan, eta, zergatik ez, faltan botatzen ditut haurtzaroak propio dituen zenbait gauza, irudimena esate baterako. Hari ez diodala uko egin behar gogorarazten dit eguzkiak.

**Ohetik altxatzeko arrazoi bat egun euritsu batean:** lur hezearen usaina, euritakoaren oihala musukatzean tantek sortzen duten sinfonia. Ezin dut saihestu: egun euritsuek nire alderdirik erromantikoena pizten dute. Naturak bere burua berritzeko beharrezkoa duen ariketa horren partaide banintz bezala sentitzen naiz, eta inoiz baino argiago azaltzen zait Borgesek poema batean esandakoa: «dena behin eta berriro gertatzen da, baina sekula gertatu izan ez balitz bezala»...

**Ohetik altxatzeko arrazoi bat egun haizetsu batean:** hostoak/orbelak dantzan ikustea. Nekez aukituko duzue hain koreografia zaindurik, egin aproba. ✓

Esti Ezkerra

**photoshop** > japoniar enbaxada berria Getxon

Irudiak eta manipulazioa: A. M.

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTAKA

# Iraganez doa denbora\* beti / EREAGA

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; boutique kasune



Algortako ijituen azoka, 2006ko martxoaren 22a

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka****DENDARIA**

Kaixo erosle maiteak begira-begira, gaurko trapu-salmenta oraintxe hasi da! Gaur egin dizkizuet bertsoak neurrira zuen neurriak hemen daudenak badira.

**XXS**

Adidos, Rebok, Terno, Qelme, Rip kurl ez bada Aztoze, zure gustuko marka guztiak ijitoenean daude.


**XXM**

Marka kontua bada zurea izan ezazu gogoan marka patrikan uzten duzula marka erosterakoan. Arropa merke erosi behar da (ahal izanez gero doan), marka garesti ordaintzen dugun dendara zergatik joan? Praka guztiak berdinak dira labadoraren zuloan.

**XXL**

Udaberriko moda hasi da hilaren hogeita biei ijitoenean gona polit bat aurkituko dut agian. Hara joan eta eskaintza gutxi aurkitu dut eskarian S gona bat baino ez dut lortu jendearen histerian; etxera joan eta probatzen hasi naiz gela erdian pasatu ditu izterrak baina gelditu da ipurdian... Beno, egia esan, loditu egin naiz azken aldian.

\* Doinua: Doinua: kabitzen zaizuna

**txistea** > aceros...

Lagun koadrila, ondo afaldu eta gero, Laudio aldera abiatu da parrandarako asmotan. Bidean, lantegi baten errotulu handi bat irakurri dute: "Aceros de Llodio". Harriduraz edo, zera esan dio batak besteari:

–Egingo al gaituk?

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)



## eguraldia > tenporen arabera udaberria euritsua datorkigu

**Pasa berri diren** tenporei buruz berba egin zuen Algortako Villamonte kaleko kultur etxean Pello Zabalak, "Nasaren iragarpenak ala tenporak?" izenburupean. Egizu Getxo Euskaldun elkarteak antolatu zuen ekitaldia eta Kepa Dieguez EtnoMet-EtnoAroa bitakoraren egilea izan zen saioko aurkezlea. Zabalak eguraldiaren iragarpena tenporei begira egiten du, antzinako euskaldunen ohitura mantenduz. Aurtengo udaberria, adibidez, nahiko nahastuta dator: lehen ilargialdia nahiko eguzkitsua izango bada ere, bigarrena eta hirugarrena oso euritsuak izango dira. Hala eta guztiz ere, hotzik ez duela egingo iragarri ei dute tenporek. Beraz, udaberriaren hasieran izango ditugun eguzki izpiekin konformatu beharko dugu. Zehatzak izan ala ez, ezin dugu ukatu Pello Zabalaen iragarpenek jendartearen duten arrakasta. ○



Ezkerrean, Pello Zabala hitzaldia ematen; alboan, bere iragarpenak entzutera bildu ziren lagunak



## armarriak > gorliz

Udalerria itsasertzean zegoenez, bertakoen irtenbidea marinel bilakatzea zen. Hareatzen gotorlekua zeukan, kanoi bigaz, Plentziako portua ingelesten erasotik babesteko. Bizkaiko itsasontzi asko bertako portukoak ziren. Adibidez, 1740an jaurerriko itsasontziei egindako ikusketa baten arabera, Gorlizko eleizatean 15 ontzi zeuden eta guztien artean 5.280 kintaleko edukiera zuten. 1299an, Diego Lopez de Harok Gaminiz auzunea kendu zion uri berri bat sortzeko: Placencia, egungo Plentzia. Armarrarian kolore naturaleko itsasontzi bat agertzen da hondo urdinean. Ezkerrean eliza dauka, dorreagaz eta dena uhin urdin eta zilarrezkoen gainean agertzen da. ○

Ezkerrean, Gorlizko gaur egungo armarraria

# saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25  
280808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria




...lehen go garaiak...



...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / t. (+34) 943 140 143

## jendea > klaseko azkarrena



**Beñat Gurrutxaga** getxoztarrak Batxilergoko Sari Nazionala eskuratu zuen joan den ikasturtean Madrilen. Eskolan zientzietako adarra aukeratu zuen, txikitatik izan ditu-eta gogoko eta, lortutako nota onak ikusita, erkidego bakoitzean antolatzen den txapelketan parte hartzerantz animatu zuten irakasleek. Saria eskuratzeko itxaropenik ez zuen arren, garaileen zerrendan argitaratuta ikusi zuen azkenean bere izena, beste 15 ikaslerekin batera. Garaipen horrek atzerrira hilabetez bidaiatzeko aukera eman zion.

Hurrengo urratsa, beraz, Madrilen aurkeztea izan zen, Estatuko ikasle onenekin lehiatzeko. Orduan ere, garaileen artean ikusi zuen bere burua. Bere ustez, sariak ekarri dion onurarik handiena ekonomikoa da (1.200 euro); izan ere, oso ezaguna ez denez, jendeak ez duela aintzat hartzen deitoratzen du. Halere, agiri akademikoan aipatzea bere curriculumari ondo datorkiola uste du.

Azterketa nahiko gatxa izan zela dio 20 urteko ikasleak eta, ezagutzak neurtu baino, bakoitzaren heldutasuna zenbaterainokoa den jakin nahi zutela uste du. Zailena historiako atala izan zen berarentzat, soilik ikasi behar diren ikasgaiak ez ditu-eta gogoko. Beharbada horregatik erabaki zuen batxilergoa amaitzean Bilboko Ingeniaritza Eskolan matrikula egitea. Oraingoz, han segitzen du eta ez du ematen txarto doakionik. ○

Gaur egun ingeniaria izateko ikasten dabil Beñat



### AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

· TEKNOLOGIKOA  
BATXILERGOAK · NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
· GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86



## ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

## SAN INAZIO

### AUTOESKOLA

1951N SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

[erretratu]



Ezkerrean semea, Pedro; eskuman aita, Adrian. Non ete Espiritu Santua?

## Pedro eta Adrian Rojo > aita-semeak dendan daude

**Confituras Yako** Larrabasterako denda guztiak egon gura luketen lekuan dago: udan metroz ailegatzekoa diren gazte oldeen hondartzarako bide-bidean. Hantxe dirau 1975etik, baina hasieran Confituras Elisa zeukan izena, eta ez zegoen oraingo lonja zabalean, alboko txikerragoan baizik. Adrian Rojok eta emazteak zabaldu zuten; sopoloztar petoa andra, Palentzian jaiotakoa gizona. *“Negozioak nire emaztearen lehengusin batentzat izan behar zuen, baina lonja hartu eta laburren lan hobea lortu zuen, eta lekua libre geratu zen”,* gogoratzen du Adrianek. *“Emaztea sartu zen, eta zer saldu ere ez genekienez, aldizkariak saltzen hasi ginen”.* Apurka-apurka litxarrerien eremu beti emankorra lantzen hasi ziren, eta gaur egun denetik topa daiteke Adrianenean (hala esaten diote herrikoek dendari). *“Lanetik irten eta gero etortzen nintzen egunero; hauek, berriz, ez”,* dio aitak semea seinalatuz, *“ez lanerako behintzat”.* *“Gu palmenak eta halakoak jatera etortzen ginen”,* kontraerasoan Pedro, lau semetan zaharrena, *“ez dakizu zelan jartzen zen hau jeneroa jaten geniola ikusiz gero!”*. Urteek ez dute barkatzen eta gurasoek erretiroa hartu zuten. Seme bik hartu zuten lekukoa, gaur egun Pedro bakarrik dabil. Badauka laguntzarik, enpresa asko hazi delako -trenbide bedeinkatua-, eta behargin batzuk edukiteko aukera ere badaguelako aspalditik. *“Hau pasalekua da orain, baina lehen arrunta zen gaztetxo koadrilak denda aurrean egotea, orduak eta orduak. Ugeraga taldearen lehen hazia ere hemen erein zen. Esan, mesedez”.* Esanda dago ba. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

# Liburutegiak 2005ean

**Euskarazko liburuen maileguak gora** egin zuen iaz, ia 7.600 liburu utzi zituzten, azken bost urteotako kopururik altuena, baina **oraindik ere mailegu orokorraren %11,4 da**

**San Nikolas, Villamonte, Areta eta Erromoko liburutegiek 7.265 liburu berri apaleratu zituzten pasa den urtean, guztira 84.121 liburu daude eskuragarri. 1.777 lagunek egin zuten iaz bazkide txartela (aurreko urtean baino gutxiagok) eta dagoeneko 16.309 bazkide dira guztira.**

**Aurreko urtean** Getxoko lau liburutegiek 148.639 erabiltzaile izan zituzten, horietatik 21.260 haurrak eta gazteak izan ziren. Ardura-dunek azaldutakoaren arabera, "2004 urtearen aldean egondako behenakada txikia erabiltzaileak teknologia berriak geroz eta gehiago erabiltzen dituelako izan da", besteak beste, mailegu eskararak, berritzeak eta funtsen kontsulta egin dituzakete Euskadiko Liburutegien Sareko web orrialdearen bitartez. Aipatzekoa da Getxoko liburutegiak Liburutegien Sareko bultzatzaile eta lehenengoetako partehartzaile izan zirela.

Osterantzean, azken bost urteotan eten barik haziz joan da maileguen kopurua, 2005ean %9,3 egin zuen gora eta guztira 66.721 mailegu egin ziren. Nagusiei emandako maileguak 50.747 izan ziren eta haurrenak zein gazteenak 15.974. Extera eroateko maileguri dagokionez, 34.986 irakurlek egin zuten eskaria (%82 nagusiak).

Horrez gainera, mailegatutako euskarazko liburuen portzentaia azken bost urteotako altuena izan zen (2001ean %10,6), eta 2004koagaz alderatuz %1,9 egin du gora, orduan izan zen portzentairik baxuena (%9,6). Dena dela, kopuru osoaren %11,4 bakarrik osatzen du oraindik ere. Hortaz, euskarazko ia 7.600 liburu eman zituzten maileguan iaz.



Mediateka, fonoteka, argazki bilduma... eta beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte liburutegiek

## Irakurrienak, mailegatuena

Irakurleek gehien eskatu zituzten liburuen artean hurrengoak daude: nagusien alorrean, *El Codigo da Vinci* (D. Brown, 129 mailegu), *El verdugo de Dios* (T. Martinez de Lezea, 91 mailegu), *Soinujolearen semea* (B.

## «El Codigo da Vinci, Soinujolearen semea eta Kika superbruja eskatuena»

Atxaga, 48 mailegu), EGA azterketak, *Oste-gunak* (J. Arretxe); eta haur eta gazte sailean, *Kika superbruja* eta *Harry Potter*. Tokiko bildumako mailegatuena *Tiempos turbulentos* (G. Iribarnegaray) izan zen.

Bestalde, liburutegien jarduna ez da eguneroko zerbitzura mugatzen, ezin ahaz dezakegu iaz martxan ipinitako Liburu Ibiltariak


zerbitzua: sarearen bitartez beste liburutegi batean dagoen liburua ekartzeko edo gordetzeko eskaera egin daiteke, urte eskasean 1.186 eskari egin dituzte. Amaitzeko, urtean zehar antolatzen dituzten beste ekimen batzuk goraiatu behar dira: Letren Terrazak, Liburu azoka, kontularien kluba... ○

## Datu batzuk

- Maileguak: 66.721
- Liburu berriak: 7.265. Guztira: 84.121
- Soinu euskarriko funtsa: 735
- Ikusentzunezko euskarriko funtsa: 1.567
- Euskarri elektronikoko funtsa: 739
- Bazkide berriak: 1.777. Guztira: 16.309
- Liburu Ibiltariak: 1.186
- Liburu azokako bisitariak: 15.000
- Letren Terrazetako bisitariak: 30.000

# Energia alternatiboen

alde **50.000 euro** bideratuko ditu Udalak aurten, azken bost urteotan 243.000 euro inbertitu ditu



Eguzki panelak Geboko Aixerrota institutuan

**Energia** alternatiboak erabiltzeko bideak ezartzeko asmoa dauka Getxoko udalak, eta egiteko horretara aurten 50.000 euro inguru zuzenduko dituela jakinarazi du. Energia alternatiboen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko asmoa adostu zuten Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE). Hala, udal arduradunek adierazi dutenez, azken bost urteotan 243.000 euro bideratu dituzte energia alternatiboak erabiltzeko bideak ezartzera.

Horrenbestez, Udaleko Ingurumeneko arloak Nagusien Egoitzan, Kultur Etxean eta Musika Eskolan ezar daitezkeen energiaren eraginkortasunaren gaineko ikerketa egitea eskatu du dagoeneko.

Horren albotik, Kirol Portuko arraun eta bela eraikin berriak energi eraginkortasunaren ziurtagiria jasoko ei duela aurreratu dute arduradunek. Agiri hori Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen CADEM (Energia eta Meatzaren Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia) zentroak eman eta EEEK ikuskatzen du.

Bestalde, udalerrian guztira edo orokorrean 200 metro koadroko ingurua legoke eguzki panelakaz estalita. Udalerriko hurrengo guzietan sakabanatuta daude eguzki-panelak: Larrañazubi, Zubilleta, Aixerrota eta Geroa hezkuntza zentroak, Fadura eta Gobela kiroldegia eta Etxezuriko babes ofizialiko etxebizitzak. ○



## ERROTONDA BERRIA

Biribilgune bat jarriko dute Algortako Salsidu kalearen eta Makaletako Etorbidearen bidegurutzean. Ekimen horrek inguru horretan dagoen Getxo I institutuko langileek zein ikasleek egindako eskariari erantzun nahi dio; izan ere, askotan salatu dute bide hori gurutzatzea suposatzen duen arriskua eta gertatu diren istripuak. Gainera, Udalak Bizkaiko Foru aldundiarekin 1997an sinatutako hitzarmenaren arabera, behin lanak amaituta, Salsidu kalearen jabetza eskuratuko du Getxok.

## GAZTEIRUDIAK 2006

Gazteria Zerbitzuak Gazteirudiak'06 deialdia kaleratu du bigarren urtez, gazteek egindako marrazkiak eta margolanak lortzeko asmoz. Lan horiek Getxoko udaleko argitalpenak grafikoki irudizatzeko erabiliko dira. Iazko lehiaketan 47 argazki, marrazki eta muntaketa grafiko aurkeztu zituzten, baina aurten marrazketa eta margolanetara mugatuko da. Gainera, Gazteria Zerbitzuak aditu batek zuzendutako tailerrak eskainiko ditu lanak egiteko. Hautatutako lanak egilearen datuekin batera argitaratuko dira.

## XXIII. HAUR ZINEMA JARDUNALDIAK

Apirilaren 19tik 23ra haur zinemaren inguruko jardunaldiak egingo dituzte Getxo Antzokian. Bertan, urteko zuzendutako filmak eskainiko dituzte: *Sky High: Una escuela de altos vuelos* (eguna); *Robots* (barikua); *Doce fuera de casa* (zapateria) eta *Oliver Twist* (domeka). Adin guztiei zuzendutako lanak dira aurkeztuko direnak eta sarrera 2 eurokoa izango da. Horrez gain, egun bakoitzean hiru saio eskainiko dira: 12:00etan, 17:00etan eta 19:00etan.

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**VIEJO CAFE**

kopak eta giro jatorra

Alangobarrri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

**Juan Jose Elezkano** > Erromoko San Jose parrokiako abadea

## “Zergaitik da txarra pluraltasuna? Errespetua eskatzen dogu, aukera bat”



*“Ibili daigun fedebidea batera, ez da bapere erraza, Jesusentzat ez zan izan, ez Mahomarentzat, ez Martin Luther Kingentzat... kostetan dan ekintza da”*

**Alafede! Olatu nahasian dabilta Erromo aldean. 35 urte daroaz San Jose parrokiak bertan Lehenengo Jaunartzea egiteko baldintza batzuk eskatzen: umeez kaletarrez jantzita joatea eta argazkiak ospakizunaren hasieran edo amaieran egitea, bitartean ez. Alabaina, orain harrotu dira hautsak, ematen du deabruak hartu dituela batzuk eta Goitzainak ere erabaki du: gainontzeko parroketan legez egiten utz dezatela. Ardi beltzarenak eta bi entzun behar izan ditu Juan Jose Elezkano parrokoak.**

—35 urte daroaz horrela egiten, zergaitik harrotu dira orian bazterrak?

—Erromon 10 urte daroadaz, eta jakina, euki daben ohituragaz jarraitu dogu. Fedeak eskatzen dau, gauza serioa behar dan moduan ospatzeko giro berezi bat; oititz egiteko giroa, Jaunaren hitza entzuteko aukera... hori lortzeko baldintzak behar dira. Jentea ez dator elizatik ia ezertarako, hiletak, bateoak edo ezkontzak direnean bakarrik... Guretzat gauza serioa da, baina datozen gehienentzat ez dauka oinarri handirik: eurak datoz ospa-

tzen dabe eta desagertzen dira. Gainera, gero eta abade gitxiago gagoz, edade nagusikoak... eta indar gitxi daukagu esate baterako, fronte egin eta esateko: hemen ez da egingo espektakulua. Baina, zertan sartuko zara lio batean, eta itxiten dozu gauza dagoen moduan. Baina Erromoko parrokiako arduradun eta laguntzaileek 35 urte daroaz pentsatzen zeozer serioa egin behar dogula, eta lortu egin dabe horrelako giroa, eta ni ados egon naz. Baina Elizbarrutian ez dabe bardin ikusi, besteek bestela egiten dabe eta obispoak

esan euskun *“egin behar dozue ingurukoek egiten dabena; hain gitxi zarienez, ez dotsuegu emoten zuen jokabidea egiteko baimenik”*.

—Hala ere, zuen ohituragaz jarraitzea erabaki duzue; ondorio latzak izan ditzake.

—Egin euskuen eskaria, derrigorrezkoa, baina uste dogu eleiza ez dala izan behar espektakulua egiteko lekua, horretarako Getxo Antzokia dago. Ebanjelioak dino seriotasunez egiteko eta pobreak ez mintzeko. Media moduan familia bakotxak 500.000 pezeta

**«Ez goaz inoren kontra;  
baina ez dugu arrazoirik  
ikusten bide hau uzteko»**

(jantzia, janaria...) gastetan ditu, hori iraina da! Nahiz eta apala izan, espektakulu barik, euki zeinke poztasuna barrutik! Fedea barrutik biziten dozunean poztasuna da Jaungoikoarengan sinesten dozula eta horrek eroaten zaituela komunidade batera; fedeak giro bat behar dau. Zergaitik batzuetan eleizan giro hori zikintzea jasa behar dogu egiten dugun antzerkiagaitik? Bestelakoa bilatzen badozu joan beharko dozu beste leku batera. Asko beste parroketara joan dira, baina gu ez gara mindu, ez gara haserraten, minduten gara hona antzerkia egitera datozenean. Ez goaz inoren kontra, ez deutsegu beste parrokiei bestela egiteko eskatu. Zergaitik da txarra pluraltasuna? Abade batzuek dinoste ona dala pausu barriak emotea; Erromokoa da bat. Errespetua baino ez dogu eskatzen, aukera bat. Egongo da? Ez dakit. Azkenengo berba Obispadoak dauka. Azaldu neutsen parrokiakoei, gure komunidadeko linea zalantzan dagoela, eta neu bere bai. Kanpora, esan leikie. Baina gabiltzanok uste dogu hau dala Ebanjelioak eskatzen deuskun bide zuzenena; ez dogu arrazoirik ikusten bide hau uzteko. ○

## Irakurzaleen Txokoa bigarren topagunea prestatzen dabil dagoeneko



Apirilaren 27rako (20:00) Laura Mintegiaz egin dute zita Irakurzaleen Txokokoek

**Zuriz** gelditu dira Getxoko Irakurzaleen Txokoko ia azken bi urteotako historiaren orrialdeak. Alabaina, idazluma hartu dute berriro eskuetan Nahikari Ayok, Rozio Lucsek eta Josu Esnaolak eta Bizarra Lepoan euskara elkar-teak aspaldi martxan ipinitako ekimena berpiztu dute.

Pasa den martxoaren 29an Unai Elorriagaren eman zion hasiera Irakurzaleen Txokoaren garai berriari, eta antolatzaileek Laura Mintegiaz lutzatu diote hurrengo topagunerako gonbitea. Zita apirilaren 27an ipini dute, kaleratu berri duen *Ecce Homo* liburuaz jarduteko aukera paregabera egongo da beraz.

Irakurzaleen Txokoak hilean behin ipini du hitzordua, eta ahal izanez gero, hileko hirugarren eguaztenez egin gura dute, arratsaldeko 8:00etan. Topalekua Itsasgane izango da, Aldai Patronatuaren eraikina (Algorta).

Hartara, hilerok euskal idazleak eta euren lanak ezagutzeko, azaltzeko, eta azken finean, euskal literaturaz jarduteko aukera eskainiko du Irakurzaleen Txokoak; hori da eta bere helburua, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea eta idazleen eta zaleen artean zubi lana egitea. Horrez gainera, blog bat zabaltzeko asmoa ere badaukate antolatzaileek "ideiak, proposamenak eta iritziak" batzeko. ○

## ALGORTAKO LIBURU AZOKA

Apirilaren 21etik 23ra arte, Liburu Azoka egingo dute Algortako Geltokia plazan. Getxoko Udal Liburutegiak eta 13 liburudendek hartuko dute parte ekimenean eta liburuek %10eko deskontua izango dute. Aurten, Iparramerikako indioak izango dira azokako gai nagusia eta horren inguruko tailerrak eskainiko dituzte. Horrez gain, Mikel Martinezek herriko jaien inguruko argazki bilduma aurkeztuko du, *Getxoko jaiak 2005 photoalbum* izenburupean. Nahi duenak azokan, liburutegietan, zein liburudendetan eskuratu ahal izango du liburua.

## BBK-K TORRENE DUEN EGOITZA ERAKUSKETA GELA BIHURTUKO DU UDALAK

BBK-k Torrene kalean daukan bulegoa 1.200.000 eurotan erosiko du Udalak, bertan erakusketa gela bat egiteko. Eraberritze lanak 2007rako amaituta egotea espero dute Udaleko ordezkariak. Lokalak 377 metro koadro ditu solairu bitan banatuta: 340 metro koadroko solairu bat eta sotoa. Beraz, behin aretoa prestatuta, Erromoko eta Villamonteko kultur aretoetako erakusketaz gain beste erakusketa batzuk ere antolatuko ditu. Gainera, ekitaldi mota desberdinak berme guztiekin egiteko aukera izango dute, proiektu berriak baldintza zehatz batzuk beteko ditu-eta, batez ere isolamenduari dagokionez. Momentuz, areto berriko aukera bi aztertzen dabil Getxoko udala: orain arte ekarri ezin izan diren erakusketak soilik antolatzea edo horiek eta gaur egun egiten direnak batera antolatzea.



RENAULT **ocasión**

## IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan



**RENAULT**  
**BILBO BERRI**  
Bizkerre/k, z/g - ALGORTA  
Tel.: 94 430 68 81  
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO  
Tel.: 94 448 39 00

Beñat Vidal > bertsolaria

# “Gogoratzen naiz haurtzaroko igandeetan *Hitzetik Hortzera* ez zela inoiz falta gure etxean”

**Zortzi urte** zituela hasi zen bertsolaritza munduan Beñat Vidal bertsolari leioaztarrak. Orain, 19 urte dituela txapelketak baino bertso afariak eta saio informalak nahiago ditu. Hala ere, bere gatzetasunean txapelik jantzi du: Bizkaiko Eskolar-

## «Batez ere gurasoengandik datorkit bertsozaletasuna»

teko Idatzizkoa bi alditan eta BBK Sariketa Ipar Uribe taldearekin. Unai Iturriaga gustuko du eta Amets Arzallus ikusten du lau urte barruko txapeldun.

—Bi anaia txikiak ere bertsolari datoz, nondik datorkizue zaletasun hori?

—Zaletasuna txikitatik dut. Lehen Plentzian bizi ginen (6 urte bete arte), eta gogoratzen naiz igandetan *Hitzetik Hortzera* ez zela inoiz falta gure etxean. Gainera, ahal genuen bertso saio guztietara eramaten gintuzten gurasoek. Batez ere, eurengandik etorri zaigu guri zaletasuna.

—Zer eman dizu bertsoak?

—Ia dena. Lehenik eta behin, euskara maila hobetzen lagundu dit. Gero, bertsolaritzak ematen dizun freskotasun hori; ideia botatzerakoan, gauzak argi edukitze-ko, etab. Bestelakoak ere eman dizkit: lagunak, momentu onak...



Amets Arzallus ikusten du Beñatek lau urte barruko Euskal Herriko txapeldun

—Bertsolaritza osasuntsu ei dabil, hala ere, Leioan bertsolari gutxi...

—Bai, halaxe da. Momentu honetan Aitzol de Castro dago. Askorik ez da ibiltzen, baina aurten entzuna daukat Bizkaiko eskualdeko txapelketara aurkezteko asmoa badaukala. Eta gero bagaude gu hirurok, hiru anaiok. Kontua da gure eskualdeko bertso eskola Algortan dagoela eta honek bultzatzen dituen ekimenak, batez ere, Getxora begira egiten dituela.

—Nola animatuko zenuke Leioako gazteria bertsoetara hurbiltzeko?

—Beno, lehenik eta behin gure tradizioa

delako eta ohitura ez galtzearen. Askotan ikusten duzu Leioan gazte jende pila bat dagoela, baina apur bat ahaztuta daukela gure erroak. Gainera, gazte jendeak hain aspergarri ikusten duen kultura hori era dinamikoagoan lantzeko aukera ematen du bertsoak. Bertsolaritza dibertigarriagoa da.

—Etorrizunera begira...

—Bertsotan jarraitzea eta ahalik eta gehien kantatzea, baina, gora begirako asmorik ez daukat nik. Bertsolaritzarekin disfrutatu eta bertso mundu honetan gustura jarraitu nahi dut. ○

**ERROTULOAK**



**ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK**

**egiten ditugu**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

Zure publizitatearen  
Zure publizitatearen  
Zure publizitatearen

94 491 13 37



# Dozenaka lagunek

eta eragilek babestu dute Leioan **'Bai eskolak euskalduntzeari!'** kanpainaren sinadura bilketa



Kanpainaren aldeko agerraldia

**"Gaur egun indarrean dauden A, B eta D ereduak, ezarrita dituzten helburuak lortzeari begiratu ez dira egokiak"**. Koldo Tellitu Betiko Ikastolako eta Ikastolen Elkarteko-Partaideko lehendakariak kanpainaren zergatia azaldu zuen martxoaren 11n jendaurrean egindako aurkezpenean. Leioako errealitateari erreparatuta, aurreko urteko matrikulazio datuen arabera, oraindik Leioako ikastetxe desberdinetan, eta Lehen Hezkuntzari dagokionez, 1.163 ikasle daude A erudian ikasten; hots, Leioan 1.163 ume aterako dira derrigorrezko hezkuntza sistematik euskaldundu barik.

Arantza Sarasola ekimenaren sustatzailetako batek sinadura kanpainaren helburuak azaldu zituen: "Hezkuntza sistemak berak Euskal Herriko belaunaldi berri guztiak berez-

ko hizkuntzaren jabe izango direla bermatzea eta, beraz, Euskal Herri osorako euskaldunduko duen hezkuntza sistema propioa aldarrikatzea". Euskal Herri mailan lortu beharreko 100.000 sinaduretatik 1.000 Leioan eskuratzea da helburua. Sinadura horiek biltzeko mahaiak jarriko dira herriko auzune guztietan, larunbat eguerdian, datorren martxoaren 25etik maiatzaren 5era bitartean.

Betiko ikastola, Berbalamiñe euskara taldea, AEK, Udal Euskaltegiko irakasleak, EHE eta Ikasle Abertzaleak herriko taldeek agertu diote babesa 'euskalduntzea bermatuko duen hezkuntza ereduaren aldeko' kanpainari. Gainera, herrian kulturaren, kirolaren eta euskararen munduan egiten duten lanagatik ezagunak diren lagunek ere babestu dute ekimena. ○

## APIRILA EUSKARAZ BLAI

"Apirila Euskaraz Blai" ekimena gure hizkuntzaren normalizazioan pausua ematen jarraitzeko bidea da. Normalean Kultur Leioak ekintzak antolatzerakoan euskara present egoten bada ere, apirilean arreta berezia eskainiko zaio. Beraz, aurten ere, apirileko programazioak euskara kutsu nabaria izango du, adin guztietarako ekitaldiak egongo dira, haurrentzat, gazteentzat eta hain gazteak ez direnentzat ere bai. Bertso saioa (apirilaren 1ean), euskal zinearen astea apirilaren 3tik 10ra bitartean (filmak, hitzaldiak eta animazio zineari buruzko erakusketa), antzerkia, haurrentzako jaiak (apirilaren 28an) eta beste hainbat ekitaldi ikusgai hil honetan. Euskara Zerbitzutik "euskaran bustizeko gonbitea" luzatzen dute.

## LAUAXETAREN ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN

"Lauaxeta. Lau haize hamaika begirada" izenburupeko erakusketa ikusi ahal izango da Kultur Leioan apirilaren 3tik maiatzaren 7ra Sabino Arana Fundazioaren eskutik. Esteban Urkiaga *Lauaxetaren* jaiotzaren urteurrena 2005eko abuztuaren 3an izan zela eta, erakusketa ibiltariak bere bizitza eta lana erakustea du helburu. Laukizen jaiotako olerkariaren ideiak eta errealitatea azaldu nahi dira argazkien, objektuen, agiriaren eta erakuslehoien laguntzaz.



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

## UDONDO TABERNA

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

# Zerutik ateratako irudiak

**Ikuspuntu berri** batetik argazkiak ateratzen eta bideoak grabatzen dituen helikopteroa eskaintzen du **Helocinek**

**Gaur egun** Helocine produkzio-etxearen egoitza Getxon dagoen arren, laster Erandion ipiniko du bere bulegoa. Zerbitzu ugari eskaintzen ditu enpresak, tartean, irudiak lortzeko urrutiko kontrolaren bidez marniatzen den helikopteroa. Sistema horrek paisajeen, eraikinen edo pertsonen irudiak orain arte ikusi ez dugun perspektibatik ateratzea ahalbidetzen du.

Nahi duenak, beraz, eskura dauka helikopteroa, kamara eta hiru pertsonako lan-taldea; izan ere, tramankuluez gain, beha-

**«Irudiak orain arte ikusi ez dugun perspektiba batetik ateratzen ditu»**

rezkoak dira operadorea, pilotua eta ekintza koordinatuko duen pertsona: lehenbizikoak kamara gidatzen du, modu independentean mugitzen da-eta; bigarrenak, urrutiko kontrolagaz gidatzen du helikopteroa eta hirugarrenak, berriz, guztia kontrolpean izateko koordinazio lanak egiten ditu.

Halaber, bezeroak bere kamara eramateko aukera ematen dute, baldin eta neurri baldintza batzuk betetzen baditu: tamaina, pisua, etb.

*«Hartzeak wescamak egiten dituenaren antzekoak izatea gura dugu, baina, helikoptero handiak zooma asko erabiltzen duen arte-*



Alvaro Gana eta Javier Bergaretxe, Helocineko kideak

*an, gurearen perspektiba ikusgarria da»,* azpimarratzen du Helocineko Javier Bergaretxek.

Produkzio-etxeak, publizitate-agentziak, erakunde publikoak (udalak, aldundiak...), argazkilariak eta enpresa eraikitzaileak dira bere bezeroak.

**«Etorkizunean atzerrian lan egin gura du Helocinek»**

## Estatuan bakarra

Antzeko zerbitzua eskaintzen duten enpresak egon badaude, baina gehienak ez dira profesionalak. Atzerrian ezagunenak Belgikako Flyingcam edo Ingalaterrako Overcam dira eta etorkizunean horiekin lehiatzea espero du Helocinek. *«Batez ere Madrileko merkatuan aritu gura dugu, hor dagoelako zinemaren gunea. Hala ere, urte batzuk barru Portugalen eta Frantzia lan egin nahiko genuke»,* nabarmendu du Alvaro Gana enpresako kideak. ○



**Arasa**

Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91



Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37




moda gaztea  
opariak

Torre 2, ALGORTA  
T.: 94 491 12 71

# Kubagaz solidarioak

Sierra Maestran irakurketa bultzatzeko Euskadi-Cuba elkarteak literatur liburuak batzen dabil liburutegian



Sierra Maestrako liburutegi bat

**Euskadi-Cuba** elkarteak proposatuta, gaztelaniazko liburuak biltzen dabilta Erandioko liburutegian. Hasiera batean, liburuak eroateko martxoaren 17ra arte zuten kanpainia honetan lagundu nahi zutenek, baina izan duen harrera ona ikusita, epea luzatzea erabaki dute.

Ekimenaren helburua Sierra Maestrako (Kuba) herrietan zehar liburuak banatuko dituen Bibliobusa hornitzea da, bertako biztanleek irakurtzeko aukera izan dezaten; horretarako, deialdia egin dute Euskadi-Cubakoek hainbat udalerritan, tartean, Erandion.

Proiektua Kubatik dator; izan ere, Handicap International, Belgikako gobernuz

kanpoko erakundeak uhartean abian jarritako kanpainia da. Erakundeak minusbaliotasunak dituzten pertsonak lan egiten duen arren, biztanle guztiei zuzendutako ekimena da.

Proiektua abenduan ipini zuten martxan eta orain arte 3.000 bat liburu jaso dituzte. Izan duen erantzuna ikusita, baliteke epea ekainera arte luzatzea, eskolak amaitzen diren egunera arte alegia. Halere, bilatzen dutena testu liburuak ez direla azpimarratu nahi izan dute Euskadi-Cubako arduradunek, euren helburua ahalik eta literatur liburu gehien biltzea da-eta. Beraz, lagundu nahi duenak Erandioko liburutegira hurbildu besterik ez du egin behar. ○

## BATUTAKO SASTARREN KOPURUA HANDITU EGIN ZEN 2005EAN

Erandion batutako hondakin solidoen kopurua %9,9 handitu zen 2005ean. Udalak emandako datuen arabera, 10.181.404 kilo sastar batu zituzten, aurreko urtean baino apur bat gehiago, orduan 9.781.000 kilo batu zituzten-eta. Etxeetako sastarrari dagokionez, 9.170.087 batu zituzten (aurreko ekitaldian, aldiz, 8.826.422). Birziklatzeko balio duten hondakinen kopurua ere handitu egin zen; izan ere, 2004an 405.130 kilo jaso zituzten eta 2005ean, berriz, 2.320 kilo (%4,32) paper eta pila batu zituzten. Halaber, sastegira eroandako kristalezko eta plastikozko edukiontzien kopurua hazi egin zen nabarmen.

## KANPAMARTXO JAIA OSPATUKO DUTE APIRILAREN 9AN

Euskara eta euskal kultura bultzatzeko erromeria egingo dute jorrailaren 9an Erandioko udalerrian. Kanpamartxo ospakizuna orain dela 10 urte baino gehiago berreskuratu zuen Berbots Erandion Euskaraz Taldeak eta, aurten, Goierriko San Kristobal auzoan izango da. Adin guztientzako ekintzak jarriko dituzte martxan: bertsolariak, dantzaldia, antzerkia, umeentzako jolasak... Besteak beste, Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria trikitilariak eta Patxi, Bat, Bi eta Hiru musika taldeak emanaldia eskainiko dute.

## SAHARAKO UMEAK HARTZEKO EPEA IREKI DUTE

Erandioko Nishma elkarteak zazpi eta hamabi urte bitarteko umeak udan hartzeko epea zabaldu du. Ekimenak umeen oinarrizko beharrezan asetzea bilatzen du: hezkuntza, osasuna, elikadura, etab. Familia guztiei zuzendutako kanpainia da, baina adin bereko haurrak dituzten sendiak animatu nahi dituzte. Informazio gehiago: 944 671 826.

# ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / [www.arlan-ser.com](http://www.arlan-ser.com) / [arlan@arlan.biz](mailto:arlan@arlan.biz)


## UDALAREN WEB-AK RSS SISTEMA IZANGO DU AURERANTZEAN

Sopelako udaleko webguneak eduki informatiboentzako RSS sistema izango du aurrerantzean. Teknologia horren bidez, orrian agertzen diren titularrak automatikoki jasoko ditu erabiltzaileak. Zerbitzu hori doan eskainiko du Udalak. Horrela, Interneten egun ematen ari den "Web. 2.0" iraultzarekin bat egin du administrazioak. Bestalde, IV. El Correo Digital euskal web onenaren saria eskuratu du. Sari banaketa joan den martxoaren 20an izan zen, Bilboko Guggenheim Museoa.

Informazio gehiago: 94 406 55 00

## ERROKODROMOTIK EHUN BAT PRESA OSTU DITUZTE HIRUGARREN BIDERREZ

Iturralde parkean dagoen errokodromoko presak ostu dituzte hirugarren aldiz eta oraingoan ehun bat eroan dituzte. Aurreko aldietan, beheko aldean zeuden gutxi batzuk hartu zituzten eta Udalak berriz ipini zituen, baina segurtasun untzekaz lotuta. Alabaina, goiko partekoak ez dituzte hain ondo lotu eta erraz atera ahal izan dituzte. Horma erabiltzen duten eskalatzaileren ustez, lapurrek sokak erabili behar izan dituzte goraino heltzeko. Udalak presa berriak erosiko dituela agindu du, baina aurrekoan ez bezala, eskalatzailerek berriak ipini beharko dituzte.



## Udalsarea 21eko kide

Garapen iraunkorraren bidean beste 138 udalerrri eta hainbat erakundegaz bat egin du Sopelak



Udalek bakarka jardunaz garapen iraunkorra bultzatzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko bidea da Udalsarea


**Iraunkortasunerako** Euskal Udalerrien Sarean, Udalsarea 21 ekimeneko partaidea da Sopela urte hasieratik, eta sarrera hori berresteko laster udalbatzan onartu beharko dituzte zehaztutako helburuak edota ekintzak.

Udalsarea 21 hurrengoek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailak (IHOBE elkartearen bidez); Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, EUDELeK eta EAEko 138 udalerririk, euren artean, Erandio, Getxo, Berango, Leioa, Lemoiz, Urduliz, etab.

Udalsarea 21en helburu edo xedea hu-

rrungoa da: Tokiko Agenda 21en prozesuen garapen eraginkorra sustatzea eta udal-kudeaketan jasangarritasun irizpideak txertatzea, beti ere estrategia komunak erabiliz. Horren albotik, EAEko garapen iraunkorraren gaineko politiketan udalen eginkizuna bultzatzea eta euskal gizartearen partehartzea indartzea da asmoa. Era berean, udalek bakarka jardunaz garapen iraunkorra bultzatzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko indarrak batzeko bidea da Udalsarea.

Horrela, Sopelak Tokiko Agenda 21 martxan du, diagnostikoa eginda dago, eta eztabaidaguneak ere prestatu dituzte. ○



**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak


## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

**Hibai Unzueta** > telekomunikazio ingeniariagaia

CAF-Elhuyar zientzia-dibulgazioko lehen saria eskuratu du sopeloztarrak



Karrera amaitzen dabil Unzueta eta trenei buruzko proiektua egiten dago unibertsitatean

**Hibai Unzuetak** eskuratu du CAF-Elhuyar XII. sariketako lehenengo garaikurra. Zientzia, dibulgazioa eta euskara baten dituen sariketak Telekomunikazio Ingeniaritza ikasten dabilen sopeloztarraren "Burdinbideen Iraultza" dibulgazio-artikuluak aukeratu du irazabazle. Trena garraiobide lehiakor eta moderno bihurtzeko hainbat alorretako garapen eta berrikuntza-lanak laburbiltzen ditu Unzuetak artikuluak: "Azken urteotan eta etorkizunean ere trenaren munduan, tren ibilgailuetan batez ere egongo diren berrikuntzak aztertu dituz".

Osterantzean, bere lana saritua zergatik izan den itaunduta zera diosku: "Agian burua hautsi dudalako teknologiari buruz modu jasangarrian idazteko; askotan kontu teknikoak dira eta jendeak hitz bi entzun eta deskonektatu egiten du; ez da erreaza horrelako gauzak era argian azaltzea". Baina ez zuela espero aitortu du 24 urteko gazteak, "eta egunero egiten duzun lana jendeari azaltzeko eta hark ulertzeko moduak

*badaudela konturatzeko balio izan dit". Unzuetak lortutako saria Imanol Andonegiren eskultura eta 1.000 euro dira eta argi dauka diru-sariagaz zer egin: "Bidaiatu, eta kontuak atera, azken urteotako bidaiak Interrailekoak izan dira!".*

**«Trenbide sare ia osoa 1900 ingurukoa da; errepideetan inbertitu dute dena»**

Bestalde, Euskal Herriko trenbide sare "oso txarto" dakusa, "Europakoakaz alderatuta, uf! Nork hartzen du trena Bilbotik Donostia joateko? Gure trenbide sare ia osoa uste dut 1900 ingurukoa dela, ez dute berritu, errepideetan inbertitu dute dena; aldaketa bakarrenetakoa metroa da, baina egiten dutena baino gehiago behar da! Etorkizunean aukerak badirela uste dut, azpiegiturak falta dira, baina tren-ibilgailuak izugarri hobetu dira; inbertitzea da kontua, gero egingo du jendeak horren alde, onura guztiak ikusitakoan". ○

**LAIAK Taberna**

Bentaxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328

**ANDER DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

**ALERGIA**

Cristian Amezaga Asensio  
Sendagilea - Alergologoa

**RINITIS – ASMA  
URTIKARIA**

Poliklinika Euskal Herria  
Euskal Herria Kalea, 22  
48991 Algorta-Getxo  
Telef.: 94 491 34 62  
I.M.Q.

[uk@aldizkaria.biz](http://uk@aldizkaria.biz)  
94 491 13 37

## LIBURUAREN ASTEA EGINGO DUTE APIRILAREN 18TIK 23RA ARTE

Jorrailaren 18tik 23ra arte Liburuaren Astea egingo dute Berangoetako kultur etxean eta pilotalekuan. Hori dela eta, egun horietan arratsaldero egingo diren ekintzetan parte hartzea animatu dute jendea antolatzaileek. Besteak beste, Hans Christian Andersen idazlearen ipuinak landuko dira ludotekan; ipuin kontalaria ekarriko dute Kultur Etxeko areto nagusira eta pilotalekuan ludoteka zein irakurtzeko karaokea jarriko dituzte.

## PASIOA ANTZEZTUKO DUTE OSTIRAL SANTUAN

Datorren apirilaren 14an Jesusen Nekaldi Bizia antzeztuko du Arte Eszenikoen Lagunen Elkarteak. Ekitaldia 21:30ean hasiko da, udaletxearen parean eta, aurten, Roberto Urrutiak egingo du Jesusen papera. Berangoko elkartearen helburua antzerkiarekiko zaletasuna sortzea eta antzerkigintza ezagutaraztea da. Orain dela 26 urte hasi ziren pasioa antzeztzen eta argi utzi nahi dute ez dela prozesio bat eta pertsonaia historiko baten bizitzaren zati bat antzeztzen dutela azpimarratzen dute. "Erlijosoa da pertsonaiaren izaeragatik, baina ikuspegi zabalago batetik tratatu nahi dugu", dio Fernando Ansoleaga elkarteako arduradunak.



## Marinel troinuak egiten ikasi dute umeek Ludotekan; barkuen maketen txanda da



Aste Santuko oporraldian goizez ere zabalik egongo da Ludoteka

**la 11 urte** daroaz Iratxe Gandariasek Ludotekan beharean, ume berangoztanaraz jolasten, eta aldi berean irakasten, eurak zaintzen eta zelanbait hezten. Orain dela gutxi Bilboko Itsas Museoa hasi da lanean, bertan antolatzen diren ikasleentzako lantegiak ematen. "Itsas Museoa ikasleei museoa erakustez gain, lantegiak ematen ditugu: marinel konpiloak edo troinuak, itsasontzien maketak, jolas dinamikoak... horregatik Berangoko ludotekan ere troimuen lantegia antolatzea burutatu zitzaidan, asteen behin lantegiak prestatzen ditugulako; umeei asko gustatu zitzairen, biharanumean batek etxean zeukan konpiloen liburua ekarri zuen! Gehienbat mutilek hartu zuten parte,

hori da abilezia batzuena!". Orain barkuen maketen lantegia egitea pentsatzen dabilta, baina Gandariasek azaldu legez, "maketak egiteko materiala ebaki egin behar da lehenengo eta horretarako liza eta barauts berezia erabili behar dira; horrenbestez, ludotekan antolatzea baino, haurrak Itsas Museoa errotea otu zaigu". Hartara, Aste Santuko oporraldian joatea proposatu dute, orduan ludotekak goizeko zerbitzua ere eskaintzen duelako (txikiak 11:00-12:30 eta gaztetxoak 12:30-14:00).


Bestalde, asteen zehar ludotekaren ordutegia hurrengoa da: txikiak (3-8 urte) 16:30-18:30 eta gaztetxoentzat (9-12 urte) 18:30-20:00. ○

## cianoplan Reprografía

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- enmarkaketak



## [Gorliz&Armintza]

**Borja Aranbarri** > Arresi Racing-eko pilotua

“Irabazten genbiltzala utzi behar izan genuen eta halaxe itzuli gura dugu”



Arresikoak Peugeot 206 xs autoagaz. Informazioa: [www.hotelarresi.com/arresi\\_racing](http://www.hotelarresi.com/arresi_racing)

“Herri Torrontegik animatu gintuen eta egitekoak serioago hartu genituen, lau lagunen artean sortu genuen kluba, motorraren mundua izugarri gustatzen zaigu, automobilismo zale amorratuak gara”, horrela gogoratzen du Ibon Aranbarrik Arresi Racing Clubaren sorrera 1999an. Handik bi urtera antolatu zuten lehenengoz Gorlizko Badia Slaloma. Ondo antolatutako slaloma dela diote askok, eta era berean berezia, aurten 4. edizioa beteko du ekimenak eta Aranbarrik aurreratu legez urrirako “edo abal badugu lehentxugoi” luzatuko dute deia.

Dena dela, kluba ez da horretara bakarrik mugatzen. Arresi Racing klubak kirol ekimenez arduratzeaz gain, rally eta lehiaketarako taldea ere badauka. Borja Aranbarri bera da bertako pilotua eta orain kopilotu Oviédoko Gabriel Suarez daroa.

Klubaren erronken artean gidatze eskola bat sortzea dago, “gu lanari ekiteko prest gaude, baina kokagunea, leku jakin bat, falta zaigu; bai eskolarentzat, bai martxan ipini gura ditugun beste ekimen batzuetarako”, azaldu du Aranbarrik. Gidatze edota bide-

segurtasuneko ikastaroak antolatzeko asmoa darabilte buruan, helburu argi batez: “Gidatzean segurtasuna bi aldetik dator: inguruko guztiaz ohartzea eta arduatzea, eta zeuk kontrolatzea makina, eta nik uste onaindik ere badirela gidari asko makinak kontrolatzen dituenak”. Bolantean trebatzeko baliabideak eman gura dituzte: “Batzuek segurtasun pasibo handiko kotxea erosteko gaitasuna daukate, baina beste askok ezin dute erosi, eta hauentzat ere zelanbait eskuragarri egon beharko luke segurtasunak” dio pilotuak.

**“Gidatze eskola sortu gura dute eta hainbat ikastaro antolatzeko asmoa dute”**

Txapelketa eta denboraldiari dagokionez, iaz ezin izan zuten lehiatu Aranbarriren gaixotasun batez, baina aurten eurek dioten legez, “irabazten genbiltzala utzi behar izan genuen eta irabazten itzuli gura dugu; gai garela uste dugu”, hau da, Rally txapelketa nagusiko *Desafío Peugeot* eta RAC euskal txapelketa lortzea. Amaitzeko, Aranbarriren ametsa? Zelan ez, pilotu ofizial bihurtzea. ○



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

**BASTARTENA**




URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

**AJURIA**  
**TABERNA**

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATÉTXEÀ

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

[basalbobaserria@yahoo.com](mailto:basalbobaserria@yahoo.com)

## ATEZAINEN ESKOLAREN EGOITZA GORLIZEN EGONGO DA

Athletic Fundazioak gidatzen duen Atezainen Eskolako egoitzetako bat Gorlizen kokatuko da. Beraz, eskualdeko talde ezberdinetako 10 eta 14 urte bitarteko umeek astelehenero entrenatuko dira Uresarance kirolegiko zelaian. Irakasleak Aitor Ares eta Kike Redondo atezainak izango dira eta teknikak, motrizitatea eta umeen jarrerak landuko dituzte.

## ASTE SANTUAN, TXANGOAK EUSKARAZ

Aste Santuko oporretan hainbat ekintza euskaraz egiteko aukera eskaini gura die Uribe Kosta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Lehen Hezkuntzako ikasleei. Horretarako, hiru txango antolatu ditu EAEko hiriburuetara eta bakoitzean gai kultural desberdinak landuko dituzte. Momentu oro begiraleen zaintzapean egongo dira.


Harremanetarako: 94 676 26 74

## PLENTZIAN EGIN GURA ZUTEN PASEALEKUA LEGEZ KANPO

Plentziako pasealeku berria Isuskiza auzoan babestua dagoen lursail batean eraiki nahi zuen Asgesur enpresak; izan ere, lanak egiteko aukeratutako tokia errekararen ertzetik hiru metrora dago. Plentziako udalak proiektua onartu arren, Txipio Bai elkarte ekologistak auzitegietara eraman zuen kasua eta epaimahaiak arrazoi eman die ekologisteei.

## URIBE KOSTA

### Bai Eskolak euskalduntzeari! kanpaina



Eskolak euskalduntzeko kanpaina hasita dago

**Eskolak** euskalduntzearen aldeko sinadura bilketa eskualdean ere antolatu dute. *Bai eskolak euskalduntzeari!* kanpaina bultzatzeko Euskal Herri osoan 100.000 lagun sinadura edota babesa lortzea dute helburu, eta eskualdean horietatik 6.300 erdieste da erronka. Hala, Uribe Kosta osatzen duten ia herri guztietan dago sinatzeko aukera.

Kanpainaren eragileen ahotan *“Euskal Herrian 3 ikasletik 2 ez da eskola bidez euskalduntzen, ikasleen %38 euskaldunduko da soilik; milaka haur eta gazteri urratzen zaie euskara jakiteko eskubidea eta honek euskararen geroa bera ere kolokan jartzen du”*. Horren

aurrean hurrengo aldarrikatzen dute: *“Euskara ezagutzeko eskubidea herritar orori bermatzea Euskal Herri osoan, eskolak haur eta gazte guztiak euskaldundu behar ditu; euskaraz ikasteko eskubidea ere bermatua izan da-dila, egun eremu askotan euskaraz ikasteko oztopoak handiak dira-eta”*. Eta instituzioei zera eskatzen diote: *“Euskararen ofizialtasuna aitortu eta gauzatzeari; euskalduntzea bermatzen ez duten politikak gainditu eta politika berriak zehaztea; euskarazko irakaskuntzaren kontrako neurriak eten eta euskaraz ikasteko eskubidea berri osoki bermatzea”*. Ados bazaude, hona hemen non sina dezakezun. ○

## Leku batzuk

- **Gorliz:** Jentilbaso euskaltegia (AEK).
- **Plentzia:** Jentilbaso euskaltegia (AEK).
- **Urduliz:** Herriko Taberna.
- **Sopela:** Nikola euskaltegia (AEK).
- **Berango:** Neba-Arrebak taberna.
- **Getxo:** Bizarra Lepoan, Getxo Bizia, Goizean prentsa-denda, Branka, Itzubaltzeta Gaztetxea...
- **Leioa:** Lamia euskaltegia (AEK).
- **Erandio:** Hegoalde elkarte, La plaza taberna, Euskara Zerbitzua, Euskaltegia, Trabudu taberna, Josu Murueta kultur etxea...

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA

25º ANIVERSARIO  
URTEURRENA  
1981 - 2006



KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA  
Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
Tel. 94 668 15 51  
Faxa. 94 66829 92  
e-mail: vasa@vasa.biz



# Api. 1 - 23

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### LEIOA

▶ **Lau haize hamaika begirada.**  
Lauaxeta.  
Kultur Leioa. Apirilaren 3tik  
maiatzaren 7ra.

### SOPELA

▶ **Emilio Sacanellen margolanak.**  
Sopelako udaletxea.  
Apirilaren 5etik 12ra.

### PLENTZIA

▶ **Recuerdos de Plentzia.**  
Udal museoa. Apirilaren 1etik 30era.

## ZINEMA

### GETXO

▶ **Salvador Allende.**  
Zine-Kluba. Apirilak 5, eguaztena.  
19:30. Sarrera: 2,80 euro.

▶ **María Bethania: Música y perfume.**  
Eta *Los Ojos de Alicia* film laburra.  
Cinema Paradiso. Azpituuludun  
jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia.  
Apirilak 7, barikua. 22:00.  
Sarrera: 2,80 euro.

▶ **Kinsey.**  
Zine-Kluba. Getxo Antzokia.  
Apirilak 12, eguaztena. 19:30.

▶ **Un año en la luna.**  
Zine-Kluba. 18 urtetik gora. Getxo  
Antzokia. Apirilak 19, eguaztena. 19:30.

▶ **Feliz Navidad.**  
Cinema Paradiso. Azpituuludun  
jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia.  
Apirilak 21, barikua. 22:00.

▶ **XIII. Haur Zinema jardunaldiak.**  
Getxo Antzokia. Apirilak 19, 20, 21,  
22, 23. 12:00, 17:00 eta 19:00.  
Sarrera: 2 euro.

### LEIOA

▶ **Obaba.**  
Auditorium. Apirilak 8, zapatua, 9,  
domeka eta 10, astelehena. 20:00.  
▶ **Munich.**



▶ Itzubaltzeta Gaztetxea

## I Koadrila Eguna ospatuko dute Erromon

Erromoko gaztetxeak ekitaldi mordoia antolatu du apirilaren 8rako. Besteak beste, txupina, txistulariak, umeentzako jokoak, pregoia, herri bazkaria eta erromeria. Koadrilak izango dira protagonista nagusiak; beraz, ahalik eta jende gehien hurbiltzea gura dute Itzubaltzetakoek. Bestalde, Kraska Gazte Konpartsak III. Gazte Eguna antolatu du apirilaren 1erako Leioan. Gazteak aisialdia sortzeko eta autogestionatzeko gai direla erakutsi nahi dute konpartsakoek eta, horretarako, goizetik gauera arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

• **Non:** Itzubaltzeta Gaztetxea • **Noiz:** apirilak 8, zapatua • **Ordua:** 12:00

Auditorium. Apirilak 22, zapatua eta  
23 domeka. 20:00.

▶ **Habana Blues.** Perseo zineforuma.  
Kultur Leioa. Apirilak 11, martitzena.  
20:00. Sarrera: 2 euro.

▶ **Buena Vista Social Club.**  
Perseo zineforuma. Kultur Leioa.  
Apirilak 18. 20:00. Sarrera: 2 euro.

▶ **Kiriku eta basapiztiak.**  
Haur zinea. Kultur Leioa.  
Apirilak 2, domeka. 12:00 eta 17:00.  
Sarrera: 3 euro.

▶ **Mixina.**  
Haur zinea. Kultur Leioa. Apirilak 9,  
domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

▶ **Bambi 2 El principe del bosque.**  
Haur zinea. Kultur Leioa.  
Apirilak 23, domeka. 12:00 eta 17:00.  
Sarrera: 3 euro.

### PLENTZIA

▶ **Princesas.** Helduen zinea.  
Goñi Portal Kulturala. Apirilak 7,  
barikua. 22:15.

▶ **Por que las mujeres siempre  
queremos mas?.** Helduen zinea.  
Goñi Portal Kulturala. Apirilak 21,  
barikua. 21:15.

▶ **Bibi y la pequeña bruja.** Haur zinea.  
Goñi Portal Kulturala. Apirilak 1,

zapatua. 18:00.

▶ **Star Wars. Clon wars.** Haur zinea.  
Goñi Portal Kulturala. Apirilak 22,  
zapatua. 18:00.

### GORLIZ

▶ **Alex & Alexis.**  
Udal Erakusgelan. Apirilak 7,  
zapatua. 17:00.

## ANTZERKIA

### GETXO

▶ **La gaviota (Chejov).** Getxo  
Antzokia. Apirilak 1, zapatua. 20:00.

### LEIOA

▶ **El Reten.** Txalo Teatroa. Kultur  
Leioako Auditoriuma. Apirilak 7, barikua.  
20:30.

### BARRIKA

▶ **Pirataklovn.** Umeentzako antzerkia  
Barrikako udaletxean. Apirilak 1, zapatua.  
11:30.

## BESTEAK

### GETXO

▶ **Gazteentzako Liburu Eguna: Jules  
Verne.** Algortako Kultur Etxea. Apirilak  
1, 2 eta 4. 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.

▶ **Liburu Azoka.** Algortako Geltokia  
plaza. Getxoko Udal Liburutegiak eta  
liburu dendek antolatuta. Apirilak 21, 22  
eta 23. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

### LEIOA

▶ **Steak Tar-Tar.** Dantza zirkuitoa 06.  
Kultur Leioako Auditoriuma. Apirilak 6,  
eguna. 20:00.

▶ **Berto Saioa.**  
Maialen Lujanbio, Amets Arzallus,  
Igor Elortza eta Xabier Paia. Auditorium.  
Apirilak 1, zapatua. 20:30.

### GORLIZ

▶ **Rosa, ipuin bat kontaidazu.** Rosa  
Maria Martinez ipuin kontalaria.  
Ikastetxea. Apirilak 8, zapatua. 18:30.

SATISTEGI



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



Leioa



## Lehenago labeak

Pasa den mendearen erdira arte edo, ogia etxeetan egiten zen, etxeetatik bereizturik egoten ziren labeetan. Astean behin egiten zen ogia, eta errealdi bakoitzean egiten zen ogiari *labesua* esaten zitzaion. Jeneralean gari-irina erabiltzen zen, baina leku batzuetan arto-irinaz ere egiten zen ogia. Labeek baina, bazituzten beste erabilera batzuk. Adibidez, errotara eroan baino lehenago artoa sikatzeko erabiltzen ziren, arto honi *labartoa* deitzen zaio. Hauexek dituzue eskualdean topatu ditugun labe ahaztu horietako batzuk.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Berango



Getxo





Berango



Gorliz



Erandio



Urduliz



Lemoiz



Erandio

[argazkia]





## Getxo XIX. mendea

### Errazkin

Bilboko Euskal Museoren artxiboa arakatzen genbiltzala irudi bitxi, eder eta, batez ere, zahar hau aurkitu genuen. XIX. mende akabuko Getxo garbi, huts ia birjina hura ederto erakusten du irudiak. Bestetik, deigarria iruditu zaigu, zalantza barik dirudunen seme-alabek izan behar duten haur garbi-garbi horien eta alboan dagoen karreteru zarpailaren arteko aldea.

Nafarroako Gobernuak Itoitz desagertarazi zuen, milaka litro uraren azpian estaliz. Juan Carlos Perezek ere zilegitasun osoz estal zezakeen bere Itoiz partikularra; artista askok, eta are gehiago 47 urteko motrikoar honek bezala etenbako eboluzioa bilatzen dutenek, euren hastapenen apostasia egiten dute, iragana galga izango dutelakoan bide barri bilatze horretan. Beraz, hala jokatzeko parkatuko geniokeen Juan Carlos Perezeri, aukera hori egin balu. Baina ez. Miguel Sanz eta enparauek etxe askoren teilatuak hondoratu zituzten, urtegi bat sortzen tematuta; Juan Carlos Perezek, aldiz, ez dio bere *Lau Teilaturi* uko egiten. Gainerakoan, sortzaile askoren istorioa da Perezena; auskalo zergatik unibertsitatean karrera bat burutu, eta hura amaitu bezain laster -lehenago ere bai-benetan maite zuenari ekin. Ekonomia-Zuzenbidean Lizentziatu titulua gizontzen dio curriculum, hain zuzen. Zorionez, zuzenbidea baztertu eta bide zuzena aukeratu zuen, edo hala uste dugu behintzat beraren musikagaz hainbeste gozatu dugunok. Uribekos-tarrontzako hurrengo aukera, apirilaren 9an, Getxo Antzokian.

# Juan Carlos Perez

## *Homo musikari*

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Ander Gillenea**

—Zuzenbidean lizentziatua Deustuko unibertsitatean. Bokazioa zeneukan ala?

—Ez. Institutuan bukatuta, orduko UBI, gogoia neukan Motrikotik ateratzeko, Bidaia bat behar nuen, eta esan daiteke ia aitzakia bezala aukeratu nuela karrera hori, baina ez neukan batere bokaziorik.

—Amaitu egin zenuen, hala ere...

—Hala da: abokatu ekonomista. Inoiz ez dut horretan lanik egin, baina bueno, karrera egin nuen eta bitartean bidaia egin nuen Bilbora.

—Eta bitartean, edo lehenago, edo geroago... musikagaz harremana hasi zen.

—Bai, beti, musikarekin beti, txikitatik. Eta beste gazua denak beti paralelo joan dira. Izen ere, Bilbora joan ginenean ikas-tera -Garate eta abar ere joan ziren karrera egitera-, bageneukan taldea antolatuta, Indar Trabes zena.

—Eta Indar Trabes ostean Itoiz etorri zen. Ez dakit amorrua emoten dizun el-karrizketetako lehenengo itaunak beti

Itoizen gainekoak izateak...

—Ez. Hori derrigirrezkoa da, eta gainera batzuetan daukadan sententzia da Itoiz izan zela oinarri edo zutabe garrantzitsua, eta hortik aurrerakoak dibertimenduak. Itoiz, gure bizitzetan eta akaso musika munduan, oso gauza inportantea izan

### **“Itoiz oso inportantea izan zen gure bizitzan, eta akaso musika munduan”**

zen, guk jakin gabe, edo gure eskutan ez zen egon behintzat.

—Hori izan da zure geroko ibilbide osoa azaltzen duena, orduan?

—Bai, hala da. Ez bazen Itoiz egon, seguruenaz ez nintzen honelako gauzak egiten egongo.

—Eta abokatu ekonomista izango zinateke?


—Ez. Musikari dagokionez esan dut aurrerako, karrera musikalean ez nintzateke-

ela oraingo gauzak egiten egingo. Abokatu izatekotan, abokatu musikala izango nintzateke.

—Tira ba, Itoizez itauntzeak amorrurik emoten ez dizunez gero, itauntzen hasiko naiz: zelan sortu zen Itoiz, zelakoa zen garai hura, zer giro zegoen musika

aldetik 70eko hamarkadako Motrikoan?

—Lehenik eta behin, musika gustatu zait betidanik. Beatles eta... Beatles oso gazte ezagutu nituen, nire anaiak entzuten zituelako. Eta horren haritik dator giroa: beste jende batekin elkartu, beste melo-mano batzuekin. Hor sortu zen giroa, orduan oso giro estua, oso txikia. Batez ere gero, rock mundura bideratzean, oso gauza inizatikoa zen, oso jende gutxi herri bakoitzean. Eta gero institutuan, Ga-



raterekin eta beste batzuekin... Mugitzen hasi ginen, eta afizio bat zen, beste batzuei futbola gustatzen zitzaizen bezala.

—Afizino moduan hasiko zineten ba, baina halako batean konturatuko zineten: hara, zer sortu dugu?

—Bueno, dena dela gu nahiko temoso ginen gure afizoarekin. Beti nahiko serio hartu genuen hori, eta hori igarri egiten da. Ez baduzu serio hartzen, ez duzu gauza naturalik egiten.

—Eta zer zenekiten musikaz? Zer prestakuntza zeneukaten?

—Bueno, nahikoa. Ni txikitatik -baita beste jende hori ere, bakoitza bere eraribilia nintzen. Motrikon musika akademia zegoen eta solfeo ikastera egunero joaten nintzen, nire kabuz; beti gustatu izan zait hizkuntza hori, musika. Orduan, solfeora joan, gero tresna bat jotzen ikasi... Ni klarinetarekin hasi nintzen, bandan jotzeko, eta mundu horretan gustura nengoan. Afizioa neukan eta neuk bultzatuta gainera, ez beste inork, nire gurasoengan eta familiako beste inorengan ez da tradizio musikalik egon.

—Motriko txiki hartan, zelan bizi zen talde ospetsua edukitzea?

—Nahiko bereziak izango ginen Motrikoko jendearentzat. Baina kontuan hartu behar da... Orduan egoten ziren joko-aretoak eta halakoak, music-box eta makina horiek, eta hor batzen ginen batzuk musika entzutera. Denetarik zegoen: Beatles, Creedence, Manolo Escobar bera ere... Dena nahastuta. Bat-batean batek esaten du gitarra jotzen duela eta talde bat sortu nahi duela, eta nahiz eta herri txikia izan, lau edo bost pertsona nahikoa dira giro bat sortzeko. Dena dela, guk jende bat eduki genuen... maisuak ez dut esango, baina haiek antolatuta egiten zituzten disko-forumak, eta hor ezagutu genituen Pink Floyd, Emerson, Lake & Palmer, jazz-a... Giro hartan hasi ginen.

—Garai batean behintzat, *Rock Radical Vasco* delako horregaz jardun zenuten, denboran batera esan gura dut, zuek lehenago hasi arren, eta arrakasta eduki

zenuten. Baina zuek ez zineten mugimendu hartako zati, nahiz eta gero batzuek, beharbada, multzo horretan kokatu zaituzteten...

—Gu beste belaunaldi batekoak ginen. Esprikatu dizudan beste garai hartatik gentozen, eta nire erreferente musikalak haiek dira, 70eko hamarkadako musika hura. Gero RRV, edo punka, azken batean kanpotik zetorren beste korrante bat, ez genuen jarraitzen, eta paraleloki funtzionatu genuen. Beti mimetismo batzuk egoten dira, baina...

—Garai hartako talde zerrenda bat eskatzen badigute, bat-batean datoz gogora

## “Txikitatik oso eroso egon naiz hizkuntza abstrakto honetan”

Hertzainak, Kortatu, Itoiz...

—Bai, baina noski, gero aztertzen hasten bazara... Hertzainak punk mugimendua bazegoela hasi zen, baina gu 70eko hamarkadan hasi ginen, rock sinfonikoaren garaian. Gero jaialdi berdinetan elkartzen ginen, baina orain ikusten da nahiko diferentea zela, hitzetan eta estiloetan eta jarretan...

—Orain barriro hasteko aukera bazeneuka, musika mundua aukeratuko zenukeen ostera ere, musikak espero zenuena emon dizu?

—Bai, azken batean ez da kasualitatea izan. Txikitatik oso eroso sentitu naiz hizkuntza abstrakto honetan, azken batean

tzeko era da. Nik horrela ikusten dut bizitza, horrela aukeratzen ditut estiloak, soinuak... Esan nahi dut hortik atera daitekeela zer ikuspuntu daukadan soziologikoki, edo politikoki, edo...

—Artista batzuek aspertuta amaitzen dute euren hastapenetako himnoak, urteak igarota ere denek gogorarazten dizkieteleko. Zelan konpontzen zara zu *Lau teilatugaz*?

—Oso ondo. Hamarkadak dira ez dudala kantatzen, orduan harro nago alde batetik himno bilakatu delako, baina ni, behintzat, ez naiz aspaldian jarri kantatzera, eta seguruenen ez dut kantatuko, niretzat

dagoen bezala dagoelako ondo. Dagoeneko ez da nire kantua, kalean dagoen kantu bat da. Gertatu izan zait norbait nire aurrean kantatzen egotea eta ez jakitea ni naizela egilea. Hori bitxia egiten zait, eta gustatzen zait, polita da. Beti sinestu dut arrakasta horrelakoa dela, berez funtzionatu behar du musikak.

—1994an hasi zinen bakarkako lanean, baina Itoiz 1988an desagertu zen, oker ez bagabiltza. Bitarte horretan zer?

—Batez ere, eta Itoizen azkeneko urteetan ere bai, piano ikasten hasi nintzen, eta klasiko munduko karrera osoa. Izan ere, orain hortik jarraitzen dut, nre eginkizun gehiena, azken urteetan, hortik doa...

## “Fantasia gehiegi daukat, eta zentzuzkoagoa izan nahi nuke”

hizkuntza abstraktoa delako, batzuetan esango nuke plastikoa dela, pixka bat eskultore gisa-edo ibiltzen garela, soinuarekin. Eta batez ere gu, gu ez ginen kantatzaileak, edo ez ginen hain literarioak, musikalak ginen, edo musikariak, edo... Orduan, oso gustura ibili naiz... Berdin-berdin aukeratuko nuen, izan ere, nire bizi-

Konposizioan eta.

—Ikerbidea egiten musika munduan, alegia...

—Bai, ikerbide profesionala. Horregatik jarraitzen dut musikan, eta nire hizkuntzatzat daukat ia.

—Bazeneukan asmoa, ikerbide hori hasitakoan, noizbait barriro musikari jarduteko,



publiko zabal baten aurrean esan gura dut?

—Ez neukan asmo zehatz bat. Inpultsuka ibiltzen naiz, eta zerbait datorkidanean egin egiten dut. Orain, disko honetan, orain dela lau urte neuzkan kantuak, zuzenerako neuzkan kantuak, disko batean grabatuta laga nahi nituen.

—80ko hamarkada amaieran hartutako bide horrek asko aldatu dizu musika ulertzeko modua, ala?

—Bai, bueno, orain ofizio gehiago daukat eta... Itoizen garaian, esaterako, ez ginen asko kezkatzen zuzenerako emanaldiekin, eta gehiago ginen sortzaileak, diskoetan-eta. Orain aldiz, kontrara: ez zait hainbeste interesatzen, edo alpergura ematen dit, estudioetan orduak eta orduak emateak, nahiago dut zuzenerako.

—Lanpetu samar harrapatu zaitugu, izan ere, estudioan sartuta, ekitaldi eskaintzen... Estudio-antzizleku oreka hori zelan

daroazu?

—Ahal den moduan, baina garaiak ere aldatu egiten dira. Gaur egun estudioko lana beste era batean egiten da, eta ez daukat ez lehenengo denbora ez lehenengo indarra. Oso lan gogorra eta temoso da.

—Garai batean, orain baino erromantikoa izango zen...

—Dudarik gabe. Lehen, estudioa joatea gauza mitikoa zen. Akordatzen naiz Itoizen lehenengo diskoa grabatu genuenekoaz: txalet bat zen, barregarria, baina guk, aldiz, Bahamasen egongo bagina bezala pentsatzen genuen, eta ez Donibane Lohitzunen. Mitoa zen, edo erritua. Gaur egun askoz ere etxekoagoa da, bazoaz eta bazatoz, egindakoa entzuten duzu berriz, aldatu egiten duzu... Magia, erritu izarea hori, galdu du.

—Teknologia aurrerapenak eraginda...

—Noski. Alde batetik erraztu egin dira

gauzak, baina lehenengo bidaia kutsua kendu da. Lehen mundu ezezagun batera egindako bidaia zen. Niretzat hor dago artearen gakoa, hori da hain justu: ezezagunera joatea, ez dakigunera bidaiatzea, eta hor, ez dakigun horretan, dago gakoa. Problema gehiegi dakizunean da. Zer egiten duzu orduan? Ofizios jardun, baina ez dago lehenengo zera hura...

—Amaitzeko: sortzaile, artista... berbak aipatu ditugu barriketaldian zehar. Sortzaile lehenengo eta gero musikari, edo alderantziz?

—Sortzaile lehenago, musikari baino, zorritzarez.

—Zorritzarez?!

—Fantasia gehiago daukat ofizioa baino.

—Eta hori txarra da?

—Bai, fantasia gehiegi daukat, fantasia gaindosia. Sobera. Eta zera izan nahi nuke, zentzuzkoagoa. ○

## HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
  - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhilton@euskalnet.net

## VASCASA

### inmobiliaria sopelana

Vascasa Sopelanak irabazien %3 bezeroak aukeratzen duen  
Gobernuz Kanpoko Erakundeari ematen dio

- Zure etxebizitzaren dohainezko balorazioa
- Vascredit finantziarioa, zure neurria
- Zure salerosketen kudeaketa osoa
- Zure etxebizitza saldu baino lehen, jarri gurekin harremanetan



Eleizalde kalea z/g. 48600 Sopelana

t.: 94 676 37 08 - fax: 94 676 50 18 - sopelana@vascasa.com



gure posta elektronikoa

# uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



KER ETA ENEKO, ATZEAN FITZ ROY MENDIA


# Patagonian

Kontinente bakoitzeko paretarik esanguratsuenak eskalatzan dabilta Pou anaiak "7 pareta, 7 kontinente" izeneko proiektuagaz. Dagoeneko Yosemite, Bulnesko Naranja, Pakistango Trango dorrea edota Tasmaniako Totem Pole igo dituzte. Oraintsu, urtarilaren akabuan seigarren txangoa egin dute Patagoniara, Fritz Roy mendia franko-argentinarra deritzon bidetik igotzeko helburuagaz. Gogotik ahalegindu ziren, bost saiakera egin zituzten, baina akabuan eguraldi kaskarrak ez zien tontorra zapaltzeko baimenik eman. Hala ere, ez dute etsiko eta bueltatu egingo dira mendia menderatzeko. Baina hurrengo txangoa Antartidara egin gura dute, azaroan edo, eta mendekua ostean etorriko da.

Argazkiak: **Jabi Baraiazarra**




FRITZ ROY ETA POINCENOT ORRATZAK



JUAN VALLEJO BIGARREN SAAKERAN

ALDEANAKO GORRABESIEN BARRIOA - ORENTA




FRANKO ARGENTINAR BIDEAREN HASIERA




IKER BIDEAREN ERDI ALDEAN



ITALIARREN BRETXA DERITZAN BIDEAN GORA EGUNSENTIAN




IZOTZ KOBAZULOETAN LOTAN



FITZ ROYREN GAINAN IA BETI HODEIAK ETA HAZETE HANDIAK EGOTEN DIRA, HOPREGATIK NEKEZ ESKALA DAITEKE



IKERREN ATZAMARRAK



PIEDRAS BLANCAS GALZIARRA, ELURREAN FITZ ROYREN ITZALA



ENIKO EKAZPEAN

# K a n o m a r t y o



PERITO MORENO GLAZIAR OSPETSUA



AZKEN GAUTXOAK, PATAGONIAKO PORTADOREAK DIRA GAUR EGUN



DEAN POTTER ESKALATZAILE KALIFORNIAR EZAGUNA, POU ANAIEN LAGUN HANDIA



CHALTEN HERRIKO TXOKOLATERIAN LAGUN GIROAN



# Kanpomartxo

## Apirilaren 9a Domeka

### SAN KRISTOBAL-GOIERRI



#### Laguntzaileak:

Trabudu, Goialde eta Uztargi dantza taldeak  
Goierriko jai batzordea, ALBE  
Altzaga ikastolako bertsolari gazteak

#### Babesleak:

Erandio Elizateko Udala: Kultura Saila eta Euskara Zerbitzua  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Euskadiko Kutxa  
Eroski



Erandio  
Elizateko  
Udala



Bizkaiko  
Foru  
Aldundia

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

EROSKI



11:30 DANTZAK  
13:00 BERTSOLARIAK  
14:30 HERRI BAZKARIA  
17:00 BETIKO KANTUAK  
Kepa eta Robertorekin  
UMEENTZAKO ANTZERKIA  
18:00 ERROMERIA  
Patxi bat,bi eta hiru

#### Antolatzailea:

Berbots  
Erandion  
Euskaraz

## zineeskola

Oskar Fernandez

### Zine zuzendari bihurtu

**Z**ine-aretoetara joatea oso ekintza kultural interesgarria da, baina honez gain filmak egitea berez oso interesgarria ere izango litzateke. Gaur egun eta orain urte batzuk hona filmak, batez ere laburmetraiak, egitea edo zuzentzea gauza erraza bihurtu da. Kamera digitalek eta, oro har, informatikak lortu dituen garapenak tomak editatzeko oso baliabide lagungarriak, hurbilak eta zailtasun gabekoak ekarri dituzte, ia edozein pertsonarentzat erabilgarriak direnak.

Beraz, hainbat eta hainbat pertsonak aipatu baliabideak erabiltzeko aukerarik baldin badauka zer dela eta ez du askoz jende gehiagok zinema esparruan jarduten? Gaur egun zuzendutako laburmetraiek oso bide zabala eta ahaltsua dute, inoiz izan duten erakusleihoa: Internet.

Bestalde, zinemagintzan murgiltzea oso zaletasun interesgarria eta hezitzailea izan daiteke hainbat eta hainbat gazterentzat. Alde batetik, gehien kontsumitzen duten hizkuntza erabiliko eta ikasiko lukete; beste aldetik, ordu luze eta gris horiek betetzeko irtenbide egokietariko bat izan liteke. Edozein ekintza artistikok gure ahalmenak garatzen ditu eta honek bete-betean jotzen du gure prestakuntza orokorrean pertsona bezala jarrera kritikoa eta zorrotza garatzeko.

Sarean gune desberdinak daude zuzendutako laburmetraiak edo ikus-entzunezko lanak argitaratzeko edo askoz hobeena dena, egindakoa lau haizeetara bidaltzeko. Interneten ere erraz topa daitezke ikus-entzunezko lengoaiari buruzko azalpenak eta ezagupenak ematen dituzten web orriak, baita nola ikus-entzunezko lanak zelan egin eta zuzendu ere. ✓

## Kubako zineari begira Leioatik

*Habana blues*, *Buena Vista Social club* eta *Looking for Fidel* apirilko zine zikloan


**Leioako** zineforumaren arduradun Perseo taldeak Kubako zineari eskainiko dio apirilko zikloa. Kuba kokaleku eta hizpide duten 3 lan aukeratu dituzte, 2 dokumental eta zelanbait kubatar gazteen bizimodua islatzen duen film bat.

Esan barik doa, Perseo zineforuma martitzeno antolatzen dutela (20:00) eta hil bakoitza zine mota, zuzendari edo horrelako bati eskainita dagoela. Izenak berak azaltzen duen legez, pelikularen ostean eztabaida edota foruma egiteko aukera dute zinezaleek Kultur Leioako aretoan.

*Habana Blues* (2005) filmak emango dio hasiera zikloari (hilak 11). San Antonio de los Bañoseko (Habana) Zine eta TB Nazioarteko Eskolan Gidoigintza eta Zuzendaritza ikasten zebilela Benito Zambanok ezagututakoak eta gordetako gogoetak batzen ditu pelikulan. Bigarren emanaldia (hilak 18) Wim Wendersek osatutako doku-

**«Martitzeno, Kultur Leioan arratsaldeko 8:00etan, sarrera: 2 euro»**

mentalarena da: *Buena Vista Social Club* (1999). Ry Cooder musikari ipamerikarrak ahanzturan galdutako 30, 40 eta 50 hamarkadetako itzal handiko musikari ku-



Looking for Fidel filmaren kartela

batarrak elkartu (Barbarito Torres, Compay Segundo, Ibrahim Ferrer...) eta *Buena Vista Social Club* diskoa kaleratu zuen. Dokumentalak, kontzertuak, entseguak, egunerokotasuna, etab. islatzen ditu. Musikari lotuak aurreko horiek biak, zer da, ba, Kuba musika barik? Eta *Comantea* barik? Horren harira azken emanaldia (hilak 25), Oliver Stonek Fidel Castroren gainean egindako bigarren dokumentala: *Looking for Fidel. Comandante* lehen saiakerak izandako kritikak eta orduan jazotako gertakariak medio Stonek osatu zuen bigarren lana. ○

## Ez galdu > Salvador Allende

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: apirilaren 5ean, eguaztena • Ordua: 19:30 • Zinekluba



Dokumental hunkigarri, erakargarri eta zalantzarik gabe oso interesgarri honek, duen eduki historikoagatik, Salvador Allende Txileko lehendakaria izan zenaren bizitza kontatzen digu. Sozialista handi honen bizitza bere haurtzarotik, Valparaisoan, bere heriotza arte, 1973 urtea, ezagutuko dugu. Bere heriotzaren eguna, irailaren hamaika, oso latza eta bortitza izan zen Txileko jendearentzat eta zalantzarik gabe munduko ezkeriar guztientzat. Egun ilun eta goibel hartan Txileko armadako militarrek estatu kolpe izugarria gauzatu zuten eta zapalkuntza, tortura eta heriotza nazio osotik pandemia beldurgarria izango balitz bezala zabaldu zuten. Pantailatik Fidel Castro, Henry Kissinger, Richard Nixon, Augusto Pinochet, besteak beste, agertuko zaizkigu. Dokumental bikain honen atzean Patricio Guzman dago. Zuzendari honek Salvador Allenderen bizitza oso ondo ezagutzen du. *La batalla de Chile I, II, III*, *Chile la memoria obstinada*, *El caso Pinochet* zuzendu ditu.

# Apirila Kantuketan

Iker Goenaga, Javi P3Z Orkestra, The Uski's,  
Ken Zazpi eta Juan Carlos Perez **Getxon**



Javi P3Z Orkestrak apirilaren 7an joko du Getxo Antzokian

**Euskara Zerbitzuaren** ekimenez, aurten ere Kantuketan musika-zikloagaz gozatzeko aukera edukiko dute getxoxtarrek. Ekinbide horren helburu nagusia euskal musikaren talderik eta artistarik onenak biltzeko topagune bihurtzea da. Horrez gainera, oraingo honetan gonbidatuetakoz zenbaitzuek kaleratu berri dituzten azken lanak aurkeztuko dituzte.

Horrenbestez, apirilaren 6tik 9ra euskal musikaren aniztasunaren lagin bat ezagutzeko aukera egongo da Getxon, izan ere, Kantuketan ekimenak musika-genero desberdinak bildu ditu. Euskal folkaren adierazle Iker Goenaga trikilaria jardungo du eta Javi P3Z

Orkestrak hurbilduko gaitu musika elektronikoren uhinetara. Portu Zaharreraino ekarriko ditu The Uski's taldeak kostaldeko doinu surferoak eta euren ostean Ken Zazpi rock eta power-popaz zipriztinduko ditu bazter horiek. (Gainontzeko kontzertuak Getxo Antzokian izango dira). Zikloari amaiera emateko, egile-musikaren lekukoa hartuko du Juan Carlos Perezek (sarrerak: 5/6 euro). Gainera, Itoizko abeslari ohiak Bernardo Atxaga izango du lagun oholtza gainean. Hartara, prestatu gozatua hartzeko, non aukeratu badago eta! ○

Informazio gehiagorako ikus 2. orrialdea

## disko berria > Su Ta Gar



Su Ta Gar taldeak osatu du azkenean estudioko zortzigarren diskoa eta jorrailaren lehenbiziko astean kaleratuko du,

Jainko hilen uhartean izenburupean. Taldekideek azaldu dutenez, "uhartea" lurra izango litzateke eta "Jainko hilak", lurreko mandatariak. 11 abestiz osatuta dago lana eta guztiak jatorrizkoak dira, ez dago bertsiorik. Taldeak betidanik jorratu duen estiloaren haritik jarraitzen du diskoak, hau da, ohiko soinuari eutsi diote. Bestalde, Juanma Bajo Ulloa Gasteizko zine zuzendariak egindako bideo-klip batek osatuko du lana. Horretarako, errepertorio berriko abesti baten bertsio laburu bat moldatu dute. Su Ta Garrek sortu berri duen Jo ta Ke zigiluarekin kaleratuko du proiektua. Halaber, hemendik aurrera euren buruen manager izatera pasatuko dira.

Informazio gehiago: [www.sutagar.com](http://www.sutagar.com)

## kontzertua > Gorizko Xumut

Oraingo honetan emanaldi akustikoa eskainiko du Kokein taldeak Gorizien (Xurru aretoa, 22:00), apirilaren 7an, barikua. Kontzertuan, *Lotuta egon arren* diskoko kantuak zein aurrekoak joko ditu Eibarko rock taldeak. Beragaz batera Avenue taldea izango da. Hurrengo egunean, apirilak 8, Señor No punk-rock taldeak Bukowski Donostiako areto mitikoan zuzenean grabatutako *Señor si* disko akustikoko abestiak joko ditu Gorizko lokal honetan. (22:00).

## diskoak

**Mr. Miracle**  
Carlos Jean  
EMI



Jeanen hirugarren diskoa dugu honako hau eta apirilaren 24an plazaratuko du. Urte biko lana, kolaboratzaile asko (Bebe, Macaco, Alaska...) eta itxura aldaketa dakarkigu kantu berrietan. Estilo ezberdinak bildu ditu oraingoa: funk, pop, soinu elektronikoa, hip-hop eta rock. Bere aurrerapen singlea *Have a Nice Day* da eta kasualitatez superheroi bihurtzen den pertsona baten istorioa kontatzen du.

**Odola sutan**  
Idi bihotz  
Oihuka



Idi Bihotzen bosgarren diskoak oraingoa indarrari garrantzi gehien eman arren, ez du betiko melodien txukuntasuna alde batera utzi. Oraingoa teklak ezabatu egin dira eta haiek ordezkatzeko beste gitarra jotzaile berri bat sartu da taldean: Pekkory. Lana Elkarrek Donostian dituen estudioetan grabatu dute, Jean Phocas, Haritz Harreguy eta Cesar Ibarretxeren laguntzarekin.

**Heltzera diren egunak**  
UEK  
Gaztelupeko Hotsak



Dagoeneko KEU zuzentzen duen taldearen laugarren lana dugu hau. Aurreko bildumetan ez bezala, KEUK berak abesten eta jotzen du gitarra, Mikel Arakistain baxu jotzailea (Etsaiak, Fjord) eta Jon Gurrutxaga batera jotzailea (Arima Beltza) lagun dituela. 70ko hard-rocka, rock melodikoa eta eritmo biziak lantzen dituzte zuzenean aurkeztu berri duten diskoan.

etorri  
eta  
ikusii!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak  
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza  
**apirilak 10**

Erromoko kulur etxea  
**apirilak 6**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389



94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

# Ecce Homo Laura Mintegi

Generotik politikari begiratzen dio bosgarren nobelan, publikoan zein pribatuan

**Hiruzpalau** urteko borrokaren ostean, plazan dago Laura Mintegiren (Lizarra, 1955) bosgarren nobela: *Ecce Homo* (Txalaparta). *“Trabatuta egon naiz denbora luzez; banekien zertaz aritu, baina ez nekien nola egin”*, aitortu du aspaldi Algortan bizi den idazleak. Politikaz eta generoaz gogoeta egin du; maskulinitateaz eta politikaz, biak uztarturik, dihardu Euskal PEN Klubeko lehendakariak lan berrian. Arlo publiko zein pribatuan gizaki maskulinoek eta femeninoek (horrek ez du esan nahi gizonek eta emakumeek) ze-

**«Banekien zertaz aritu, baina ez nekien hori nola esan»**

lan jokatzen duten du aztergai Mintegik, *“badaude modu desberdinak res publican, politikan jarduteko: modu maskulinoa eta femininoa, modu bertikala eta horizontala, hierarkikoa eta adostasunean oinarriturikoa... gure herrian biak daude oso bizirik; horrek guztiak eremu publikoan eta pribatuan ere enagina dauka”*. Ez du ukatu erronka handia izan denik, baina demazalea bada. *“Ez dut idazten literatur ariketa butsa egiteko, baizik eta mundua hobeto ulertzeko”*, azaldu du, eta norberaren bu-



Laura Mintegi

ria eta inguruko mundua elkartzeko lekuak aurkitzeko egiten duela gaineratu. Bere obran konstate bihurtu dena, eta aurreko nobeletan egin antzera, *“muturreko egoeratan, gizakiak zirt edo zart erabaki behar duenean, orduan, gizakiak zelan aurre egiten dion”* aztertzen du *Ecce Homon* ere.

Zer kontatu argi zeukan hasieratik, ostera zelan kontatu ez. Baina igarri ei du, paragrafoak banatu, ezkertera eta eskuinera alderatuta agertu ditu, bamegogoeten adierazle. Horrenbestez, Mintegik adierazi duenez gaia berak ekarri du formaren proposamen berria. ○

## liburuak



**Arotzaren eskuak**  
Alberto Ladrón Arana  
Elkar

Alberto Ladrón Aranak, suspensez eta ustekabez beteriko eleberria aurkeztu digu. Misterioak Frantziako Erresistentziara eramango gaitu, II. Mundu Gerraren garaira. Horrez gain, 40 urte beranduago Europako hainbat lekutan gertaturiko hilketa izugarri baten lekuko izango gara.




**Zazpi bider zazpi**  
Felipe Juaristi  
Erein

Gaszteentzako eleberririk klasiko bat idatzi du Juaristik, abentura eta intrigaz betea. Hiria utzi eta herrira bizitzera doan Sebastian nerabearen istorioa kontatzen da bertan. Besteak beste, hiriaren eta herriaren arteko desberdintasunak eta arazo sozialak jorratu ditu autoreak.

**Punta Galea** > txirindulari elkarte

Oraintsu aurkeztu dute denboraldi berrirako talde osoa eta apirilera Javier Otxoa Klasika ere



Javier Otxoa Klasika hilaren 9an egingo da. Informazio gehiago: [www.puntagalea.com](http://www.puntagalea.com)

**Ez da** hilabetea joan Punta Galea txirindulari elkarteak denboraldi berrirako talde osoa aurkeztu zuenetik. Txapelketetan parte hartuko duten taldeak eta zikloturismoko taldea kontuan hartuta 100 bat txirindularik dihardute Punta Galean: eskolakoak 8, kadeteak 7, juniorrak 10 eta zikloturistak 68.

Ostera, Punta Galea txirindulari elkarte sortu zela 30 urte baino gehiago dira eta ibilbidea laburbiltzeko martxan ipini berri duten web orrian hurrengo datuak eskaintzen dituzte: Bizkaiko lehen nesken taldea (1979-80); hasieratik urtero aurkeztu ditu gazte mailako kategoria guztiak (eskola, kadeteak eta junior); beteranoen taldea (1982-86); amateur taldea (1987-88), iaz arte 3.872 lizentzia tramitatu dira; 385 zikloturista pasatu dira, 1.027 gazte; Espainiako Ziklo Kros txapelketaren antolaketa (1990); Munduko Ziklo Kros txapelketaren prestaketa (1990); Getxoko Nazioarteko Zirkuitua (1987tik), eta abar luzea. Osterantzean, Punta Galeakoen

ekimenez urtero-urtero bi dira Getxok txirindularigaz dituen zitak: Randonne Punta Galea edo iaztik Javier Otxoa Klasika deitua, eta Getxoko Zirkuitua edo 2001etik Ricardo Otxoa Memoriala (uztailak 31). Izan ere, Otxoa anaiek elkarte getxoztarrean eman zituzten txirindularitzako lehenengo urteak.

Hala, Javier Otxoa Klasika hilaren 9an egingo da (09:00, Fadura) eta zikloturistentzako lasterketak bi ibilbide dauzka: 100 km-koa eta 82 km-koa. Izen ematea egun berean edo aurretiaz egin daiteke (10 euro, 21 euro federatu bakok).

### «Junior mailakoentzat Getxoko Zirkuitu antzeko lasterketa antolatu dute»

Horrez gainera, junior mailako txirindularientzat 77,6 km-ko Getxoko Zirkuitu antzekoa ere antolatuko dute apirilaren 16an (10:00), eta Euskal Herriko trofeorako proba puntugarria izango da. ○

**BISITATU GURE DENDA!**

MOROTXO

**KANTXA KIROL moda**



**350** M<sup>2</sup>

**KIROLERAKO GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

**ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA**

**Lacofris, s.l.** SERVITEC



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00

Kasune, 18 • ALGORTA

**BEROGAILU ETA ITURGINTZA INSTALAZIOAK**

**HIRURAK**


T: 430 53 46

Sarrikobaso 15

48990 ALGORTA

**Cristian Amezaga** > alergologoa

“Askotan sintomak argiak diren arren, jende askok ez daki alergia duenik”



Alergiari aurre egiteko umeek amagandiko edoskitzea izatea gomendatzen dute medikuek

**Bilbon jaioa bada ere, aspaldidanik Algortan bizi da Cristian Amezaga, alergiak sendatzen dituen medikua. Gaitzaren inguruko ikasketak Frantzian burutu zituen, Angersen (Nantestik gertu), orain dela 20 bat urte; beraz, denbora nahikoa daroa asma, urtikaria eta errinitisagaz borroka bizian. Alergiak osatzen lan egiteaz gain, gaitzaren inguruko artikulu piloa idatzi du, besteak beste, Elhuyar aldizkarian.**

—Askotan entzun diogu jendeari alergiak berba egiten, batez ere udaberrian. Baina zer da zehazki alergia?

—Pertsona batzuen gorputzak hainbat substantziei ematen dien erantzun bortitza da. Batzuek, adibidez, ezin dituzte arrakadak jantzi eta beste batzuek, ordea, ez dute inolako arazorik. Mukiak, asma, konortea galtzea edo heriotza eragin dezake kasu batzuetan.

—Udaberrian jende gehiago ibiltzen ei da alergiak jota...

—Bai, duda barik. Maiatzean ematen dira

kasu gehienak, polen gehien izaten den garaia da-eta. Gainera, urte bakoitzean toki ezberdinetan aurki dezakegu. Aurten, adibidez, haltzak dira arriskutsuenak, baina beste batzuetan mimosak edo pinuak izan dira.

—Zeintzuk dira gure artean aurki ditzakegun alergia motak?

—Ohikoena akaroen eragindakoa da, herriarren %25 eta jasaten dutelako eta, batez ere, neguan ematen da hezetasunaren ondorioz. Atzetik landareek eta animaliek sorrarazitakoak datoz; alabaina, gero eta gehiago

dira latexari eta txarto prestatutako arrainari alergia diotenak.

—Gero eta garbiagoak izanda kasu gehiago atzematen direla diote batzuek.

—Bai, hori diote. Guztia aseptikoagoa izateaz gain, jaiotzen garenetik txertoak ematen dizkigute eta, ondorioz, beste patologia batzuk garatzen ditugu. Ez hori bakarrik, orain dela urte batzuk ez zeuden substantziak bizi gara orain: fruitu tropikalak, animalia exotikoak...

### «Mutil bat hiltzeko zorian egon zen kiwiari alergia ziolako»

—Baina alergia jaiotzez dugu...

—Bai, genetikoa da, baina sintomak eragingo dizkigun gaiagaz kontaktuan egon behar dugu.

—Zeintzuk dira zure gomendioak?

—Lehenengo eta behin, gaitza dugula konturatzea ezinbestekoa da, sintomak izan arren, askotan ez dakigu-eta alergia dugunik. Zalantzaren bat izanez gero, medikuarengana jo eta frogak egitea izango litzateke egokiena. Behin arazoa atzemandu, hura eragiten duena saiestu behar dugu edo botikak hartu.

—Zein da inoiz ikusi duzun kasurik larriena?

—Mutil batek kiwiari zion alergia eta birritan etorri zen ospitalera. Bigarren aldia hiltzeko zorian egon zen, kiwia ebakitzeko erabilitako aitzo batekin bere jatekoa ikutu zutelako. Pentsa!

—Gaitzari aurre egiteko espezialista asko dago Euskal Herrian?

—Gutxi daude. Jeneralean pneumologoek, dermatologoek, pediatrek edo otorrinoek betetzen dute hutsune hori. ○

**Esakere >** "Astoak esan leio mandoari: ken hakit horrago, belarri!"



Irudia: Gorka Vazquez

Astok astori zer esaten dotson, astok hasarre daunen zer egiten daun, eta astok, asto paraten danen, zer egiten ez daun... Holau kontuk darabilguz sarriten gure ingurukon portakeren ganen berba egiteko. Pentsa lei asto dala portakera burubako duztin iturri eta adibide ona, baia holau portakerak gure arten hain sarri ikusten direz ta, ez ete goaz apurke-apurke asko arimaten aston portakerera gu?

Esakera hau R.M. Azkuek batuniko da, eta beran "Euskalemiaren Yakintza" behar handin topako dozue.

Gure **berbakere** 74

**BERBA JATOR BATZUK (XVIII)**

Berbakere 70en aspaldin erderatik harturiko berba batzuk, hau da, maillegu zahar batzuk, ikusi genduzen, gure euskeran aspalditik eta modu jatorran erabilten direzenak. Berbakere honetan aurrera egingo dogu horrek mailleguk ikusten.

Testua: **Xabi Bilbao**

• **grazik:** (iz.) eskerrak! Pasa dan gauza on bategetitik poztasune edo lasaitasune erakusteko erabilten da. Sarri esklamaziñon.

—*Hor dau lámi batelez ule orraztu ta orraztu... Grazik prisik eztékule úrtetako!*

—*Botilla bat lótzzen dala óndiño zabaldu barik? Grazik! Salbata gauz!*

• **idéa -e:** (iz.) abilitade (gaitasun ona) zeozer egiteko.

—*Ño, hara zelau zaldítxu pinta daun! Honek umek idée deko gero, artíste deku hemen!*

—*Argiñano ta hórren esplikaziñok apúnta bai, baia idée ber da gero noperak bardin iteko.*

• **jénero:** (iz.) gauzak; sarri, etxeko beharizenetarako direzenak.

—*Solótik aurten eztaude jénero handirik atara.*

—*Boltsa hándikez yon dire plazara, baia kasik jénero barik etor dire.*

—*Umen kótxetxu ta jénero zahar dúztik bóta ingo duz léku iteko.*

• **kalentura -e:** (iz.) gexotasun batzuk dakarren berotasune (sukarra).

—*Atzo txaparradan azpin ibil zan ta gaur kalenturéaz dau ohian.*

• **kámara -e:** (iz.) etxeko goiko gela, ganen tailletu besterik ez dekona (ganbara).

—*Pátatak daukez zabal-zabal iminte kámareko alde baten.*

• **kamiño:** (iz.) karretere, bide (errepide).

—*Oiñ kamiño zabalak daukez automóbillek, baia halan ta bere kasik kabidu ezin.*

—*Kamioiak bádatoz txirindulárik apárta in ber kamiñon baztarrera.*

I

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza, 3 T: 430 23 45  
Telletxe, 1 T: 460 27 41

*Algorta*

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Errotalde  
ileapaindegia**

**HARTU TXANDA TELEFONOZ!!**

**T: 460 38 90**

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

**GAVRKO**



**GIZONENTZAKO  
MODA**

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

*María Jesús*

**ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA**

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

**HARTU TXANDA**



gaizka escudero / basalbokoa

## Barazkiak

tenpuran

**O** sasungarria da barazkiak jatea, baina hori jakin arren nagi moduko zera bat sentitzen dugu barazki plateraren aurrean. Barazkiak tenpuran prestatzen baditugu tentagarriagoak izango dira beti. Japoniarrak adituak dira barazkiak prestatzeko era erraz honetan.

Lan apur bat ematen badu ere, barazki bakoitza bere aldetik egosi (ez gehiegi, *al dente*) behar dira, bere puntu egokia har dezaten. Gero sorkiaz ondo sikatu eta irinatik pasatu ura aska ez dezaten. Tenpura arto, arroz eta gari irin nahasketa berezi bat da, gero urarekin loditzen dena eta gaur egun eginda eros dezakegu zenbait dendatan. Barazki egosiak tenpuratik pasatu (albardatu moduko bat da-eta) eta oliba oliotan frijitu, buelta eta buelta. On egin! ○

### osagaiak

• azenarioak • espinakak • azalorea • lekak • kalabazina • tenpura



itsaso arana / jolastokikoa

## Verdejo

mahatsa

**R**ueda jatorri izendapena duten ardaoak egiteko erabiltzen den mahats zuria da *verdejo*. Duero ibaiaren bazterrek eta Gaztela osoa mahats zuri gozo honez josita daude.

Gure txakolinarekin gertatzen zen moduan, lehen oso ardao eskasak eta zatarrak egiten ziren *verdejoaz*. Gaur egun, berriz, teknologia berrien abaintalak baliaturik, arrakasta handia daukaten kalitateko ardao gazte zuriak egiten dira verdejoaz.

Mahats honek ematen dituen ardaoen ezaugarriarik azpimagarriena euren aromen indarra da, oso intentsitate handikoak dira eta. Bistara kolore hori orlegitsua berezia dauka. Garraztasun eta mingostasun ikutu bat uzten dute beti ahoan oso afrutatuak diren ardao hauek. Amaitzeko, esan behar da hotz zerbituz gero oso erraz edaten direla. ○



**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
**ezagutzen al duzu?**

*herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO

CAFE

**usategi**  
**ALGORTA**

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13



# Zuri-Beltz taberna

Adin guztientzako **leku lasaia** Plentzian



Iratxe Safon eta Irune Cantalejo tabernako langileak

**Alvaro Bermudo** Algortan dagoen *Getxo* tabernako jabea zen, baina udan herria hutsik geratzen zela ikusita, lokal berria ireki zuen Plentzian orain dela zortzi bat urte. Taberna lasaia da, herriko hondartzan, eta oso atsegina izaten da bertan zer-bait hartzea itsasoko mugimenduari zein hondartzari begira. Dekorazioa polita da, itsasoari lotua, eta antzinako argazkiz beteta daude hormak, herriko historiaren lekuko.

Beharrian guztietara egokitzen den karta eskaintzen du Zuri-Beltzek; izan ere, kafe bat hartzeko, menua jateko, zein hanburgesekin asetzeko leku aproposa da. *"Non aukeratu badago. Gainera, han-*

*burgesa edo bokata hartu eta hondartzan jan dezake nahi duenak"*, kontatu digu Alvaro Bermudo jabeak eta nabari da hori, bertan adin guztietako jendea biltzen da-eta. Horrez gain, uda partean terraza jartzen dute eguraldi onaz gozatzeko.

Aste barruan eguneko menua eskaintzen dute eta aste-akabuetan, berriz, menu berezia (arraina, okela, hiru plater aukeratzeko, etxeko postreak eta ardoen karta berezia). Talde handientzako jatekoak enkarguz egiteko aukera ere ematen dute. ○

**ZURI-BELTZ**  
Areatza kalea, 43 - Plentzia

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!*

**GOZOLABEA**  
**GALDARETXE**

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**KONTXI**  
**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**UK-n  
lan egiteko  
kazetaria  
behar dugu**



**curriculumak  
bidaltzeko**

**uk@aldizkaria.biz**

# ITXASGANE

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariiluze z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

## GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarrieriak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Tellexte 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA

## aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

## [horoskopoa]

### URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Udaberriak odola aldaratzen duela diote, bada aurtengo honetan zuk transfusio itzela jasango duzu eta odola irakiten edukiko duzu. Onerako ala txarrerako, aldaketa izugarria sentituko duzu eta hamaika jardueria egiteko gogotsu ibiliko zara.

### AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Ez dakizula berakiko sentitzen duzuna zelan azaldu? Bi bide daude, proposa diezaiokezu: a) mendira osteratzea egitea; zertara? Liliak zelan jaitozen diren ikustera. Ala b) baduzula berarentzako propio jaito den bikotea, zure lagun jator bat.

### GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Jateko eta pinua landatzeko bakarrik alcatzen zara sofatik! Ipurdia ere hasi zaizu loditzen, eta kezatu egiten zara? Mugi zaitze! Dagoeneko kirola egitearen esangura hitzegian bilatu beharko duzu! Kirola telebistan ikustea ez da nahikoa, aizu!

### META



(Irailak 17 urriak 16)  
"Kasurikpez"! Haserreko eta pipertuta dabil, baina ez zugaz bakarrik. Burua hamaika kontutan darabil eta bera bakarrik aztoratzen da; baina lagun ona da. Beraz, patxadaz hartu eta eskaini iezaiozu zure laguntza.

### OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Buruan gauza bat sartzen zaizunean ez dago buru-traba hori libratzeko gai den iturginik. Ezezkoa jasotzen baduzu ere ez duzu iskanbilarik sortzen, baina azkenerako ingurukoak gogaitsu eta gura duzuna lortzen duzu. Beti ez da horrela izango!

### HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Aurrekoan lagunen jardunak aspertzen zintuela esan zenuen, orain bakardadeak gogaizten zaitu. Zer egin? Aspertuko ez zaituen lagun talde berria bilatu edo damu zarella eta barkamena eskatu. Hobe zenuke bigarrenaren alde postura egitea!

### LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Parrandazale elkartearen presidente izateko aukera handiak dituzu. Hala ere, hobe zenuke azken eta azken aurreko tragoxka edan barik utzi, bestela nagusitzean beste elkarte "anonimo" batean eman beharko duzu izena... Ez gabiltza txantxetan!

### HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)  
Irratia, liburua, disko bat, ogitartekoa, eguzkitarako betaurrekoak eta krema... Ez zaizu ezer ahaztu? Inguruetara irteera bat prestatu baldin baduzu hobe duzu badaezpada anoraka eta botak sartzea motxilan, hainbeste maite du curiak Euskal Herria!

### ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Geure arazoak larriagoak direla uste dugu beti, besteak eragozpen eta ezbehar arinak. Kontua da gurekoegiak garea. Gehiegikerian bizi gara. A ze zortea gurea aberatsen aldean jaito garelako! Bai, aberatsen artean bizi garelako! Zu gose al zara ala?

### EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Zeuen arteko mutur saldaeren sukaldari bakarra zu zeu izan zara... orain egindakoak lepoan hartuta aurrera segitu behar... Honezkeru zure urak ez du bere errota mugituko! Ur geza zena gazi bihurtu duzu, eta ur gazirik edaterik ez dago!

### IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Graffitiz beteriko horma luzea, udaberriko loraz margoztutako larrea, olatu laztangarritz irudikatutako itsasoa, hondartza bakesuen hotsa... Bizitza ezin duzu mutu eta zuri-beltzen imajinatu, ahal izanez gero medikurarengana ahalik eta arinen joan!

### NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Ama ez da zure burukominen erantzule, eta hori ondo dakizu zuk! Beragaz haserretzeak gainera ez ditu onik ekarriko, eta hori ere badakizu. Horregatik, sarri askotan zalantza izaten dugu: ume tontoa zaren ala tontoarena egitea gustuko duzun!

# MUNGIÀ

## OKINDEGIÀ

Algortan badaukagu  
artisauen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA

Esker eskulirik

HITZ GURUTZATUAK

*[Handwritten signature]*



KEKO

### HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3						■			■	
4						■				■
5						■				
6			■							
7			■				■			
8			■				■			
9	■						■			
10						■				

### Ezker eskuin

1. Agintariak agintean egiten duten aldia. 2. Penagarri. 3. Senide arra. Sodioaren ikurra. Lehen bokala. 4. Lore baratzea, lilitegia. 5. Mairidorea, mihisea. ...edo Anjel Lertxundi, euskal idazlea. 6. Musika nota. Armiarma sare. 7. Zezen zikiratu. Erbioaren ikurra. Moila. 8. Aitaitxiak, aitaitak. Neodimioaren ikurra. 9. Herdoil. Sigla automikoak. 10. Bustialdi. Errotariak eho lanagatik hartzen duen saria.

### Goitik behera

1. Osotasun baten zatien azterketa. Boroaren ikurra. 2. Giza talde baten suntsitze sistematikoa. 3. Donostiako auzoa. Zarratu. 4. Erioxako hiria, Nafarroako Erregeen egoitza. Zango atal. 5. Trataera. 6. Zilarren ikurra. Bokala. Birao. 7. Lanbro euri. Potasioaren ikurra. Berrogeita hamar. 8. Drainatze hodiak. Bizkaiko herria. 9. Iridioaren ikurra. Muga zergak. 10. Gipuzkoako herria. Ipar Euskal Herrian, inudea, hazama.

Soluzioak

A	G	I	N	T	A	L	D	I	A
N	E	G	A	R	G	A	R	R	I
A	N	A	I	A	■	N	A	■	A
L	O	R	A	T	E	G	I	A	■
I	Z	A	R	A	■	A	N	D	U
S	I	■	A	M	A	R	A	U	N
I	D	I	■	E	R	■	K	A	I
A	I	T	O	N	A	K	■	N	D
■	O	X	I	D	O	■	E	A	E
B	A	I	N	U	■	L	A	K	A

## asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



### Nor da?

- Euskalduna hitzez eta jaiotzez
- Frontoian txikitan hasi zen
- Asier da anaia pelotariaren izena

> Aurrekoaren erantzuna: x

> Irabazlea: **Borja Zurita (Algorta) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren biru  
hilabeteko harpidetza doan



• Freexkue  
liburua

www.argia.com



gure posta elektronikoa

# uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



INMA BILBAOK UTZITAKO ARGAZKIA

## Urdulizko Ansoleaga baserrian, 1911

**Joan den** mende hasierako Urdulizko familia baserriar peto-petoa duzue goiko erretratu ederrean agertzen dena, Bilbao Ansoleaga familia hain zuzen ere. Soloa lantzea eta ganadua jagotea zen euren ogibidea. Argazkian jesarrita gurasoak daude, Evaristo Bilbao eta Pilar Ansoleaga; euren inguruan, seme-alaba guztiak bat izan ezik: Domingo. Dotore-dotore jantzita azaltzen dira bilbaotarrak euren baserriaren; izan ere, jai egun batean egin zieten erretratu, zehazki 1911ko Erramu egunean jakin ahal izan dugunez. ○

**Zutunik:** Pantxike Bilbao, Maria Bilbao, Ramon Bilbao, Luisa Bilbao.

**Jesarrita:** Matilde Bilbao, Evaristo Bilbao, Angela Bilbao, Valentina Bilbao, Pilar Ansoleaga, Isidro Bilbao.

**EÑAUT ELORRIETA** > Ken Zazpi musika taldeko abeslaria

# “Pertsona arruntek egiten dute historia, galtzaileen laguna naiz”

Testua: **Oiane Moran**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Apur bat konplikatu da berba bitan definitzeko. Inguruan gertatzen denak eragiten dit, sentibera naiz.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Oso aktore txarra izango nintzateke eta, gainera, nire bizitzan protagonista izaten lan handia daukat.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Pertsona arruntek egiten dute historia, galtzaileen laguna naiz.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Bat baino gehiago, baina ez dira elkarrizketa batean esatekoak.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Musika. Nire familiaren ustez denbora larregi ematen dut musika egiten eta abesten.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Mexikon bitan egon naiz eta hirugarrenez joango nintzateke.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**

Nire gertuko lagunak gezurretan ibiltzea eta traizioa.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Inoiz ametsik ez dadila falta, ez txikiak ez handiak.

**Lo egiteko ezer janzten al duzu?**

Zeozer, baina pijamarik ez.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Musika barik.

**Zein da ikusi duzun azken filma?**

*Brokeback Mountain*. Geldoa iruditu zait.

**Eta irakurri duzun azken liburua ?**

*El último amigo*, lagun batek oparituta. ○

**LABURREAN**— 1996an, Eñaut Elorrietak, Jon Mikel Arronategi Exkixuko baxujotzaile ohiagaz batera, Ken Zazpiren proiektua martxan jarri zuen. Orduan ez zuen pentsatzen, baina, Busturialdeko taldeak horrenbesteko arrakasta izango zuenik, musikari gutxik lortu du-eta hainbeste jende mugiaraztea. Halere, gernikar honen eskarmentua ez da taldera mugatu eta bakarka hainbat proiektutan hartu du parte: Lauaxetaren omenez egindako *Ehungarrenean hamaika* ekitaldian abestu zuen, Mikel Urdangarinegaz jo izan du gitarra, Leioan egindako Ibilaldiaren abestia sortu zuen beste musikari batzuekatz batera, e. a.

nolako ikasketak, halako etorkizuna

**Leire Gomez de Segura,**  
Psikopedagogiako ikaslea.

*"aniztasunaren erronka ulertu eta berari erantzutea, oso onuragarria da"*





Erreferentziako  
txartela:  
Finantza-txartelen  
erraztasun  
guztiekin eta  
gainera...

**Bidaia-  
asistentziako  
doako aseguru**  
abantailak era  
guztietako 2.000  
establezimendutan.

Deskontuak  
mundu osoan  
izateko giltza.

Kontsultatu  
**BBK26 gida,**  
**www.bbk.es**  
orrian